

TOKIKO AGENDA 21



garapen iraunkorra  
DESARROLLO SOSTENIBLE

## Gida metodologikoa IRAUNKORTASUNAREN ALDERDI SOZIALA

Nola indartu Tokiko Agenda 21en  
alderdi soziala?

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila  
63.zk. 2007ko Otsaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

garapen iraunkorra  
DESARROLLO SOSTENIBLE



ingurumena.net

Gure esku dago  
Está en nuestras manos

Eusko Jaurlaritzaren mendeko  
Sozietate Publikoa



# Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak [www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net) helbide elektronikoan ikus ditzakezu.

- **31.zk. 2004ko martxoa.** "Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorretantz"
- **32.zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Ekintzaplanak martxan jartzeko gida"
- **33.zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Partehartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida"
- **34.zk. 2004ko ekaina.** "Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004- 2006"
- **35.zk. 2004ko uztaila.** "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari"
- **36.zk. 2004ko iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
- **37.zk. 2004ko iraila.** "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumenekarpena (2004- 2006)"
- **38.zk. 2004ko urria.** "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
- **39.zk. 2004ko otsaila.** "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"
- **40.zk. 2004ko otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak"
- **41.zk. 2004ko azaroa.** "2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario"
- **42.zk. 2004ko abendua.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumeninpaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida"
- **43.zk. 2005ko urtarrila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa"
- **44.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST'05"
- **45.zk. 2005ko ekaina.** "Gazteak aldatetaren alde. Kontsumo iraunkorretarako hezkuntzako esku-liburua"
- **46.zk. 2005ko apirila.** "Beira-, Zeramika- eta Karesektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten ingurumenekarpena (2005-2006)"
- **47.zk. 2005ko Maiatza.** "Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004"
- **48.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa"
- **49.zk. 2005ko apirila.** "Aalborgeko konpromisoak. Euskal udalerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpena"
- **50.zk. 2005ko maiatza.** "50 Ingurumen Jardunbide Egoki, Udalerriak Eredu"
- **51.zk. 2005ko maiatza.** "Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (Ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean)"
- **52.zk. 2005ko uztaila.** "2004ko Industria Ekobarometroa"
- **53.zk. 2005ko iraila.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 2004"
- **54.zk. 2005ko urria.** "Gainazalak Tratatze Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumenekarpena (2005-2006)"
- **55.zk. 2005ko azaroa.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2005ko Ingurumen-Adierazleak"
- **56.zk. 2006ko apirila.** "Nekazaritza eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan 2006ko Adierazleak"
- **57.zk. 2006ko maiatza.** "IPPC Zuzentzarauaren Eraginpean dauden Instalazioetan Ingurumen-baimen Integratua Eskatzeko gida"
- **58.zk. 2006ko uztaila.** "Europako Batasuneko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako jardunbide Egokiei buruzko Eskuliburua"
- **59.zk. 2006ko uztaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen inbentario bateratua. 2003"
- **60.zk. 2006ko urria.** "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa"
- **61.zk. 2006ko azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aeronautikaren eta Espazioaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egindako ingurumen-ekarpena (2006-2008)"
- **62.zk. 2006ko abendua.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2005"
- **63.zk. 2007ko otsaila.** "Gida metodologikoa Iraunkortasunaren Alderdi Soziala. Nola indartu Tokiko Agenda 21en alderdi soziala?"

© IHOBE 2007

**ARGITARATZAILEA:** Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE, S.A.

**EDUKIA ETA IDAZKETA:** Bakeaz Ekitaldeen lanen laguntza tekniko gisa «Iraunkortasunaren dimentsio soziala» - Udalsarea 21

**DISEINUA:** Dual<sup>®</sup> - Comunicación & Diseño

**ITZULPENA:** Elhuyar

**LEGE GORDAILUA:** VI -72/07

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

## ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitarteko a edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



## TOKIKO AGENDA 21

Gida metodologikoa

### **IRAUNKORTASUNAREN ALDERDI SOZIALA**

Nola indartu Tokiko Agenda 21en alderdi soziala?





**Javier Madrazo**  
Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza  
eta Gizarte Gaietako  
sailburua

# Aurkezpena

**G**arapen Iraunkorra kontzeptuak ingurumena babestea, kontserbatzea eta sustatzea baino gehiago esan nahi du. Alderdi ekonomiko eta sozial garrantzitsuak ditu. Gure garapen-ereduak iraunkorrak ez diren joerak dauzka, eta horiek klima-aldaketari zein energiaren erabilerari, baliabide naturalen zein lurzoruaren kudeaketari eta garraioei lotuta daude, baina baita txirotasunari zein gizarte-bazterketari edota erronka ekonomiko eta sozial berriei ere.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Herritarrek Parte Hartzeko Zuzendaritzari bereziki interesatzen zaio Tokiko Agenda 21en garapenari jarraipena egitea, eta horren alderdi soziala sustatzea, garapen eta laguntza tekniko zehatza koordinatuta.

Egun, tokiko erakundeek gainditu beharreko erronkak (enplegua, immigrazioa, gaztedia, auzo jakin batzuen gizarte-degradazioa...) sailkatzea gero eta zailagoa da, eta hainbat lan- eta ekintza-esparrutatik hurbiltze integralak eta diziplina anitzekoak egitea eskatzen dute.

Hori dela eta, Udalsarea 21en esparruan *Iraunkortasunaren Dimentsio Soziala* ekitaldia sortu zuten; hainbat arlotatik eta administrazio mailatatik etorritako kargu politikoek eta teknikariek osatutako lan-taldea, hain zuzen ere. Taldea modu aktiboan inplikatu zen prozesu neketsu eta konplexu batean (10 bilera eta eztabaida-saio baino gehiago), eta parte hartzeko, trukatzeko eta iritziak kontrastatzeko eredu ona izan da. Era berean, Gida berritzaile honen oinarritzko edukiak zehaztu ahal izan dira.

Gida aplikatuz gero, iraunkortasunaren irizpideak hobeto integratu ahal izango dira; tokiko errealitatea hobeto ezagutuko da; administrazioa eta herritarrak iraunkortasunean oinarrituta hezi ahal izango dira; zeharka eta epe luzera planifikatu ahalko da; kalitate handiagoko udal-kudeaketa egingo da; eta udal-politikak optimizatuko eta eraginkorragoak bilakatuko dira.

Honelako Gidei esker, gizarte oparagoa eta justuagoa lortzeko aurrerapau-soak emango dira; ingurumen garbiagoan, osasungarriagoan eta seguruagoan biziko eta erlazionatuko den gizartea, hain zuzen ere. Bazterketarik gabeko gizartea, solidarioagoa, bidezkoagoa, txirotasunaren aurka eta bakearen, genero-berdintasunaren, baliabideak kontserbatzearen, bitzta errespetatzearen eta gizarte- zein kultura-berdintasunaren alde lan egingo duena. Azken finean, bizi-kalitate hobez gozatzeko eta hori etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko aukera emango digun gizarte iraunkoragoa.



**Esther Larrañaga**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen  
eta Lurralde Antolamendu  
saiburua

# Aurkezpena

**G**arapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21 onartzea eta martxan jartzea ezartzen du, Euskadiko iraunkortasun-politikaren lehentasunezko helburu gisa. Helburu horrekin bat, eta azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak Tokiko Agenda 21 hedatzeko tresnak eta ekimenak garatu ditu. Horien artean, 2002an Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea-Udalsarea 21 sortu izana nabarmendu behar da. Sarearen helburua Tokiko Agenda 21en Ekintza Planak martxan jartzea da, baita udal-kudeaketako esparru guztietan iraunkortasun-irizpideak sartzeara ere.

2006-2009 arteko Plan Estrategikoan bildutako sarearen helburuen artean ondokoa legoke: *“Tokiko Agenda 21 martxan jartzerakoan gaitze teknikoa eta metodologikoa bideratzea, eta iraunkortasuna udal-kudeaketan sartzeara”*. Horretarako, sareak udalei laguntza emateko hainbat lan garatu ditu. Xedea tokiko iraunkortasunaren gizarte-dimentsioa sustatzea da, horiek baitira Gida hau idazteko oinarri.

Dokumentuak Euskal Autonomia Erkidego osoko udalerrri guztientzat erabilgarria izan nahi du, udalerrriaren tamaina, lurralde-testuingurua eta Tokiko Agenda 21en elaborazio-fasea edozein izanda ere. Hala, ondoko helburuak bete nahi dituzte; lehenik eta behin, Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren gizarte-alderdiak sartzeari eskaintzen dituen abantailak eta aukerak bisualizatu nahi dituzte. Bigarren helburua gure udalerrietako Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren gizarte-alderdietan sentsibilizatzea eta hezteak, eta modu estrategikoan zeharkako politiken garapenean ekarpenak egitea da, esparru ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa Tokiko Agenda 21en markoan sartzeko. Azkenik, marko teorikoa eta erreminta teknikoak zehaztu nahi ditu, eta Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren gizarte-aldagaia sartzeko prozesua diseinatzeke, martxan jartzeko eta ebaluatzeke oinarrizko printzipioak, irizpideak zein alderdi metodologikoak eman nahi ditu.

Azken urteotan aurrerapauso handiak eman diren arren, oraindik ere bide luzea geratzen da egiteko, eta guztion eta gutako bakoitzaren zeregina da gero eta iraunkorragoak izango diren herrietan eta hirietan bizitzea.







# A u r k i b i d e a



<b>1. SARRERA</b>	7
<b>2. JAKIN BEHARREKOAK</b>	10
2.1. Etorkizuneko arrisku eta mehatxuak	10
2.2. Zer da garapen iraunkorra?	10
2.3. Zergatik hartu behar dira kontuan alderdi sozialak?	11
2.4. Zer da Tokiko Agenda 21?	12
<b>3. PARTE-HARTZEA ETA ZEHARKAKOTASUNA, TOKIKO AGENDA 21en ARDATZ</b>	15
3.1. Parte-hartzea, beharrezko inbertsioa	17
3.2. Zeharkakotasuna, konplexutasunari emandako erantzuna	18
3.3. Zenbateraino erantzuten diote Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Agenda 21ek parte-hartzea eta zeharkakotasuna bultzatzen dituen eredu bikain horri?	19
<b>4. TOKIKO AGENDA 21etan GIZARTE-DIMENTSIOA TRATATZEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EAEn</b>	23
4.1. Arrazoi instituzionalak	23
4.2. Arrazoi metodologikoak (edo inplementaziokoak)	24
<b>5. TOKIKO AGENDA 21etan ARLO SOZIALA SARTZEAREN ONURAK</b>	25
<b>6. TOKIKO AGENDA 21etan ALDERDI SOZIALAK SARTZEKO METODOLOGIA</b>	27
1. FASEA. Aldez aurreko definizioa	27
1.1. Helburuen zehaztapena (zer egin nahi dugu?)	27
1.2. Egoeraren analisisa (Nondik abiatuta? Norantz? Nondik?)	29
2. FASEA. Alderdi sozialak sartzea	34
2.1. Prozesuaren diseinua (nola eraman dezakegu aurrera?)	34
2.2. Diagnostiko integrala egitea (zer dakigu gure udalerriri buruz?)	36
2.3. Ekintza Plan integrala diseinatu (nola bihurtu egia?)	36
2.4. Ekintza Plan integrala ezarri (nola bihurtu egia?)	37
2.5. Ekintza Plan intergralaren jarraipena (Nola jakin dezakegu funtzionatzen ote duen?)	37
<b>7. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK</b>	42
7.1. Bibliografia	42
7.2. Interneteko guneak	42
<b>8. ERANSKINAK</b>	43

## I r u d i e n   a u r k i b i d e a


<b>1. irudia.</b> Gidaren eskema kontzeptuala	8
<b>2. irudia.</b> Iraunkortasunerako eragileen sarea	8
<b>3. irudia.</b> Iraunkortasunaren gaikako sarea	12
<b>4. irudia.</b> Prozesuko ezaugarri nagusiak identifikatzea (Nondik?)	29
<b>5. irudia.</b> Iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzeko prozesua	32
<b>6. irudia.</b> Iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzea	34



## T a u l e n   a u r k i b i d e a

<b>1. taula.</b> Zertarako da gida hau? Erabilgarritasun praktikoa	9
<b>2. taula.</b> Dimentsio sozioekonomikoa eta ingurumen-dimentsioa garatzeko eta integratzeko ikusmoldeak	11
<b>3. taula.</b> Garapen iraunkorraren ereduaren definizioa	14
<b>4. taula.</b> Tokiko Agenda 21en potentzialtasunak	16
<b>5. taula.</b> Herritarren parte-hartzearen abantailak eta erabilgarritasunak	17
<b>6. taula.</b> Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Agenda 21etako Ekintza Planak ikuspuntu sozialetik begiratuta	24
<b>7. taula.</b> Sozialki iraunkorra den udalerraren definizioa	25
<b>8. taula.</b> Tokiko Agenda 21etan arlo soziala sartzearen alde onak	25
<b>9. taula.</b> Nor naiz? Zer egin dezake?	28
<b>10. taula.</b> Tokiko Agenda 21en ereduak	31





# 1. S a r r e r a

**T**okiko Agenda 21en bitartez, euskal udalek garapen iraunkorra sustatzeko politikak ipini dituzte martxan udal-kudeaketaren arloan. Lanerako programa hauekin, tokiko gobernuek kontzientzia ekologikoagoa hartu dute udalerrian gizartearen eta ekonomiaren aldetik dauden aldeei dagokienez.


*Aalborgen (2004) izandako Hiri eta Herri Iraunkorren IV. Konferentzian zehaztu ziren Europako udalerriek iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko finkatu beharreko erronkak. Hauexek dira gure udal-ordezkariek hartu beharko lituzketen konpromisoetako batzuk, iraunkortasunaren bidean pauso sendoz egin nahi badugu aurrera: gobernatzeko modu berriak bilatzea, udal-kudeaketa iraunkortasunera zuzentzea, arduraz kontsumitu eta biziitzea, osasunerako tokiko ekintzak antolatzea, tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra izatea, eta gizartearen justizia zein berdintasuna bilatzea.*

Udalerri batean garapen iraunkorra kudeatzeko xedea duen edozer prozesuk, ingurumenaz gain, alderdi ekonomikoa eta soziala ere izan behar ditu kontuan. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu kontzeptuaren esanahi holistiko edo osoa berreskuratzea, *iraunkortasunaren kontzeptua berriro formulatzen*, ingurumenaz gain alderdi ekonomiko eta soziala eta barnebilduz.

Kontuan hartuta bai testuinguru hori, bai Tokiko Agenda 21en prozesuak eraginkortasunez garatu ahal izateko sortzen diren beharrak, gida honek oinarrizko *helburu* hauek ditu:


- Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzek ematen dituen *abantaila eta aukerak* ikusaraztea.
- Iraunkortasunaren alderdi sozialaren inguruan *hezi eta sentsibilizatzea*.
- Gure udaletako Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzek *sustatzea*.
- *Zeharkako politikak estrategikoki garatzen laguntzea*, Tokiko Agenda 21etan ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloak ere sartu ahal izateko.
- Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko *printzipio orokorrak ezartzea* (erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna, unibertsaltasuna, prebentzioa, integrazioa, normalizazioa, herritarren parte-hartzea, plangintza, koordinazioa, kooperazioa eta deszentralizazioa).
- *Marko teoriko bat eta tresnen zein tekniken multzo bat zehaztea*, eta *printzipio, irizpide eta oinarrizko alderdi metodologikoak* finkatzea, Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala erraztasun handiagoz disenatu, txertatu eta ebaluatu ahal izateko.

Dokumentua sei ataletan dago banatuta, 1. irudian azaltzen den moduan. Bertan, iraunkortasunaren alderdi soziala Tokiko Agenda 21etan modu egokian txertatzeko *oinarrizko alderdi teoriko eta instrumentalak* agertzen zaizkigu. Honako gida hau prestatu baino lehen landutako marko teorikoaren eta diagnostiko kuantitatibo zein kualitatiboaren azken emaitza dira.



1. irudia. Gidaren eskema kontzeptuala.

## IRAUNKORTASUNERAKO ERAGILEEN SAREA



2. irudia. Iraunkortasunerako eragileen sarea.

Iturria: "Tokiko Agenda 21en alderdi soziala" ekitaldeko partaideek elkarren artean egina, oinarri moduan Criteris i propostes per a la participació ciudadana de l'Agenda 21 de Barcelona hartuta, zeina Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Institut de Govern i Polítiques Públiques (IGOP) sailak egin baitzuen.

## ZERTARAKO DA GIDA HAU? ERABILGARRITASUN PRAKTIKOA

- Tokiko 21 Agendetan alderdi soziala sartzekak ekarriko lituzkeen abantailak eta aukerak erakusteko.
- Iraunkortasunaren alderdi sozialaren inguruan sentsibilizatzeko eta hezteko.
- Gure udalerrietako Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzekoa sustatzeko.
- Zeharkako politikak estrategikoki garatzen laguntzeko, Tokiko Agenda 21etan ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloak erraztasun handiagoz sartu ahal izateko.
- Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko printzipio orokorrak ezartzeko (erantzukizuna, elkartasuna, berdintasuna, unibertsaltasuna, prebentzioa, integrazioa, normalizazioa, herritarren parte-hartzea, plangintza, koordinazioa, kooperazioa eta deszentralizazioa).
- Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko prozesua diseinatzen, txertatzen eta ebaluatzen laguntzeko marko teorikoa eta tresnen eta tekniken multzoa zehazteko, eta oinarrizko printzipio, irizpide eta alderdi metodologikoak emateko.
- Euskal Autonomia Erkidegoan dauden egoera ezberdinetara moldagarria den eredu oso eta malgua aurkezteko. Halaber, udalerrri bakoitzak dituen beharrentzat hainbat ildo edo/eta erantzun ematen ditu.
- Azken finean, gure udalerrietako Tokiko Agenda 21en prozesuetan iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko errealitate ideala ahalbidetzen du.

### 1. taula. Zertarako da gida hau? Erabilgarritasun praktikoa.


*Iturria: Guk geuk egina.*

Gida honek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalerrri guztientzat izan nahi du erabilgarri, edonolako izanik euren tamaina, testuinguru historikoa edo Tokiko Agenda 21 prestatzeko fasea. Hartzaileak hainbeste izatean, eta lana bera hain berritzailea, beharrezkoa izan da irizpide nagusiak ondo zehaztea. Lanaren helburua ez da konponbide orokor eta zurrunik ematea, jakin baitakigu iraunkortasunak udalerrri bakoitzeko egoera xehetasunez aztertzea eskatzen duela.

Prozesu honetan guztiok hartu behar dugu parte. Horregatik, gida hau ondokoei dago zuzenduta: udalako eta udalaz gaindiko teknikariei, zuzenean edo zeharka Tokiko Agenda 21eko prozesuko faseekin zerikusia duten Euskal Autonomia Erkidegoko hautetsiei, tokiko erakunde eta eragile ekonomikoei, Tokiko Agenda 21eko prozesuetan udalak aholkatzen dituzten ingurumen eta komunikazio-enpresei, ikastetxeei, komunikabideei, sindikatuei, enpresarien elkarteei, elkargo profesionalei,

merkatarien elkarteei, bizilagunen elkarteei, auzoetako bestelako elkarteei, gizartearekin, kulturarekin zein kirolarekin lotutako erakundeei eta antolatu gabeko herritarrei.

Gutziz beharrezkoa da gu guztiok sentsibilizaziorako eragile aktiboak izatea, gure bizimoduan balio eta jarrera iraunkorrak transmititzeko konpromisoa hartuz. Aldatu egin behar dugu gutako bakoitzaren eta erkidegoaren bizimoduari, kontsumoari, osasunari, gizatasunari eta berdintasunari eragiten dion errealitatearen aurrean dugun ikuspuntua; hau da, gure pentsaerari, gure sentimenduei, gure jokabideari eta inguruarekin eta gure artean erlazionatzeko daukagun moduari eragiten dion kultura. Azken finean, gure udalerrietako Tokiko Agenda 21eko prozesuetan iraunkortasunaren alderdi soziala integratzen lagunduko duen aldaketa bultzatu behar dugu.



## 2. Jakin beharrekoak

### 2.1. Etorkizuneko arrisku eta mehatxuak

**G**ure garapen-ereduak *iraunkorrak ez diren hainbat joera* agertzen ditu ondoko gaietan: klimaren aldaketa, energiaren erabilera, zoruaren eta baliabide naturalen kudeaketa, garraioak, osasun publikorako arriskuak, pobrezia, gizarte-bazterketa eta gizarteko zein ekonomiako erronka berriak.

“Gizakiak dira garapen iraunkorraren inguruan sortzen diren kezken ardatz. Naturarekin harmonian egongo den bizimodu osasuntsu eta emankorra izateko eskubidea dute”.

*Garapen Iraunkorrari buruz Johannesburgoan eginiko Munduko Goi-bilera (2002)*

Egoera honen jatorria gizakiarekin dago lotuta: gizakia bere inguruarekin era desegokian erlazionatzen ari denaren adierazgarri da. Planetaren ardatza balitz bezala bizi da, naturari jaramonik egin gabe, naturak dituen mugei eta orekaren arauari kasurik egin gabe. Erabakiak hartzen dituenean, gainera, *modu murriztailean* behatzen ditu mundua eta bizitza bera. Ikuspegi murriz horren ondorioz, gure ekintzak isolatuta gelditzen direla iruditzen zaigu, luzapenik gabe, eta ez dutela zerikusirik arazo zabalago eta orokorragoekin.

Gizakiak ahaztu egiten du beste izakien presentzia eta garrantzia, eta garapena zein zioritasuna ahalik eta ondasun gehien izatearekin lotzen ditu. *Etika hori ez da inondik inora solidarioa*, ez pertsonekin, ez beste izaki bizidunekin, ez naturarekin. Izan ere, etika horren arabera, gutxi batzuek eskubidea dugu Lurreko baliabideak gure onerako erabiltzeko, eta orain eta hemen kontsumitzeko, naturan sortzen dugun desorekari jaramonik egin gabe, eta duintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dabiltzan milioika kideren ahotsen aurrean entzungor eginez.

### 2.2. Zer da garapen iraunkorra?

*Stockholmeko Konferentzia* eta Erroma Klubak prestaturiko *Hazkundearen mugak txostena* (1972) mugari historikoak izan ziren, orduantxe hasi baitzen ingurumenari buruzko kezka sortzen. Ondoren, garapen iraunkor kontzeptua dokumentu ofizial batean erabili zen lehenengo aldiz, hain zuzen ere Garapenari eta Ingurumenari buruzko Nazio Batuetako Mundu Batzordeak egindako *Gure etorkizun komuna* dokumentuan, *Brundtland txostena* (1987) ize-nez ezagutzen denean alegia.

Txosten horretan azaltzen den definizioaren arabera, hona zer den garapen iraunkorra: *egungo beharrak datozen belaunaldiak beren beharrak asetzeko izango dituzten aukerak arriskuan jarri gabe asetzen dituen garapena*.

Garapenerako eredu honen helburua, jarduera ekonomikoen, ingurumen-jardueren eta jarduera sozialen iraupena ahalbidetzea da. Hori lortzeko, hainbat printzipio jarraitu beharra dago: bere alderdi guztiak modu egokian uztartzea, aberastasunak ekitatiboki banatzea, naturako baliabideak euren ahalmenaren mugara iritsi gabe erabiltzea, eta planeta bizigarri egitea.

“Planeta hau ez da gure aurrekoengandik jaso dugun jaraunspena, gure seme-alabek utzi diguten ondasuna baizik”.

EREDUA	EZAUGARRIAK	DIMENSIO SOZIOEKONOMIKOAREN ETA INGURUMEN-DIMENSIOAREN ARTEKO ERLAZIOA
<b>HAZKUNDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esklusiboki materialak diren helburuak.</li> <li>• Industrializazioarekin identifikatua.</li> <li>• Herrialde garatuei mugatua.</li> <li>• Gutxien garatuta dauden herrialdeetako ondasunak desjabetzean oinarritua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrialde garatuetako helburu ekonomikoaren nagusigoa, gutxien garatuta dauden herrialdeen behar sozialen eta ingurumenaren baldintzen kalterako.</li> </ul>
<b>MODERNIZAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esklusiboki materialak diren helburuak.</li> <li>• Industrializazioarekin eta demokratizazioarekin identifikatuta.</li> <li>• Garapenerako eredua gutxien garatuta dauden herrialdeetara zabaltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxien garatuta dauden herrialdeei zuzendutako helburu ekonomikoaren nagusigoa.</li> </ul>
<b>GARAPEN IRAUNKORRA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburuen materialen eta postmaterialen harmonizazioa.</li> <li>• Hirugarren sektoreko industriarekin, demokratizazio formalarekin eta ingurumenaren kudeaketarekin identifikatuta.</li> <li>• Globalizazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Justaposizioa.</li> <li>• Nagusiki gehien garatutako gizarteei mugatuta.</li> </ul>

## 2. taula. Dimensio sozioekonomikoa eta ingurumen-dimentsioa garatzeko eta integratzeko ikusmoldeak.

*Iturria: Guk geuk egina, Imanol Zuberoren eta Josi Imazen eskutik, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Agenda 21etan alderdi soziala integratzea: marko teoriko orokorra, 2005.*

### 2.3. Zergatik hartu behar dira kontuan alderdi sozialak?

Garapen iraunkorra dimensio asko biltzen dituen kontzeptu globalizatuak da, ingurumena babestea, kontserbatzea eta sustatzea baino askoz harago doana. Izan ere, kontuan hartzen ditu belaunaldien arteko kezak (egungo erabakiek ezin dute itzuliezinezko eraginik sortu etorkizunean), bizi-kalitatearen alderdi ekonomikoak (egungo beharrak asetzeko aintzat hartu behar dira ekipamendua, errenta, enplegua, gizarte-estaldura, etab.), eta garapenaren alderdi sozialak (herritarrek kulturara jotzeko dauzkaten aukerak, eskubideen berdintasuna, emakumea gizarteko sektore guztietan sartzea, presakuntza eta hezkuntza jasotzeko aukerak, bazterketa soziala eraztea, etab...).

Naturarekiko eta izaki guztiekiko zuhurtzia eta errespetua izan behar dira oinarri moduan, baina baita berdintasuna, soiltasuna, doitasuna, elkartasuna eta gutako bakoitzaren zein erkidegoaren erantzukizuna ere. Era horretan, bai ekosistemaren zaintza, bai eredu ekonomikoa, bateragarriak izango dira gure gizarteko balio kultural eta etikoekin.

“Garapen iraunkorra erabatekoa izan dadin, beharrezkoak dira demokrazia, Zuzenbidezko Estatuak, bakea eta segurtasuna lortzea, giza-eskubide eta askatasunak aitortzea, pertsonen eragiten dieten erabakietan parte hartzeko aukera izatea, pobrezia desagerraraztea, eta kontsumo zein ekoizpen iraunkorra sustatzea”.

*Gautengeko Deklarazioa (2002)*

Gaiztatu egiten ditu orain arteko ikuspuntu zatikatua, eta, gizateriaren ongizatearen alde, ingurumen-baliabideak eta baliabide ekonomiko zein sozialak sustatzen ditu, eta politika eraginkorrak diseinatzen eta kudeatzen (kostu baxuak eta kalitatezko zerbitzuak), ingurumenari dagokionez egokiak (baliabideak agortzen eta kutsatzen ez dituztenak) eta sozialki zuzenak (onuragarriak eta bidezkoak). Era berean, ez da aberastasun ekonomikoak biltzera mugatzen, beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen dituelako (osasuna, heziketa, eskubideak, etab.). Ondasunak, zerbitzuak eta aukerak ekitatiboki banatzea eskatzen du gainera.

“Erronka izugarriak dauzkagu aurrean: jakiturian oinarritzen den ekonomian lana sortzea, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea, gure ingurumena eraginkortasunez babesteko dugula bermatzea, aztarna ekologikoa gutxitzea, aldaketa demografikoei erantzutea, kultura-aniztasuna bermatzea, gatazkak saihestea eta aurrez gerra jasan duten erkidegoetan bakea ziurtatzea. Horrek guztiak udal-politikak diseinatzean ikuspuntu indartsuagoa eta integratuagoa izatera behartzen gaitu, helburu sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta ingurumenekoak bateratzen lagunduko diguna”.


*Aalborg Plus 10 (2004)*

*Ingurumenak garrantzi berezia du, baina baita alderdi ekonomikoak eta sozialak ere. Alderdi soziala ez da erabaki hutsal batengatik edo justizia egiteagatik sartu. Ingurumenaren nariadura guztiz lotuta dago herrialde garatuen oparotasunarekin eta bizimoduarekin, eta garapen-bidean dauden herrialdeetako eliteekin. Era*



## IRAUNKORTASUNAREN GAIKAKO SAREA

### Iraunkortasun soziokulturala



### 3. irudia. Iraunkortasunaren gaikako sarea.

Iturria: "Tokiko Agenda 21 en alderdi soziala" ekitaldeko partaideek egin, oinarri moduan Criteris i propostes per a la participació ciudadana de l'Agenda 21 de Barcelona hartuta, zeina Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Institut de Govern i Politiques Públiques (IGOP) sailak egin baitzuen.

berean, baztertuta bizi direnen pobreziarekin eta bizi-raupenaren aldeko borrokarekin dago lotuta.

Gizakiaren bizi-maila hobetzea esan nahi du, baina naturaren gaitasuna gutxietsi gabe, baliabideak agortu gabe, gizartearen ongizatea eta kohesioa bultzatzen, eskubideen berdintasuna sustatzen, integrazio kulturala eta herritarren parte-hartzea hobetzen, betiere hurrengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko aukera izango dutela bermatzen.

"Garapen iraunkorrera zuzendutako hezkuntzaren Nazio Batuen hamarkadaren (2005-2014) helburuak bi dira: gizateriarentzat bideragarriagoa izango den gizarte sortuko duen hezkuntza sustatzea, eta garapen iraunkorra hezkuntza-sistemako maila guztietan sartzea".

Garapen iraunkorrera zuzendutako hezkuntzaren Nazio Batuen hamarkada (2002)

Gizaki guztientzako ongizatea, gizarte-kohesioa, eskubideen berdintasuna, integrazio kulturala eta parte-hartzea, ez baitugu ahaztu behar garapenaren ideia ez dugunean gizaki guztientzat zabalitzen, desorekak sor-tzen ditugula, eta, ondorioz, kalteak ere bai, eta

hauek guztiak bateraezinak direla gizakiaren eta naturaren arteko harmoniarekin.

"Gizartearen eredu iraunkor bat sortzeko ekintza praktikoek besteak beste alderdi hauek dituzte oinarrian: baliabide naturalen ustiaketa optimizatzea, garbi ekoiztea eta ingurumen-gastuak barneratzea. Baita belaunaldien arteko eta lurraldeen arteko elkartzasuna, izaki bizidun oro eta natura errespetatzea, ekitatea, zuhurtasuna, soiltasuna eta gutako bakoitzaren zein erkidegoaren erantzukizuna".

### 2.4. Zer da Tokiko Agenda 21?

Orain arte aipatutako arrisku eta mehatxu global guztiek isla dute herrietan. Gazteek soldata egokiko lan egonkorra aurkitzeko dituzten zailtasunak, etxebizitza duin batean sartzeko dauzkaten aukera urriak, etorkiniek gizarteratzeko dauzkaten arazoak... Horiek guztiak udalerrri guztietan gertatzen dira, eta gure gizarteak batera iraunkorrak ez direnaren frogarik nabarmenenak ditugu.

Agenda 21 Nazio Batuen Ekintza Plana da, 1992an Rioko Lurraren goi-bileran 173 gobernuak onartua,

ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den garapena ahalbidetzeko.

Beharrezkotzat jotzen zuen printzipio horiek udalerrietan integratzeko udaletako agintariak inplikatzeko. Bere 28. atalak Udal Ekintza Plana idatzi eta gauzatzera gonbidatzen zituen udaletako agintariak eta udalerriak, hots, geroko Tokiko Agenda 21en oinarria izango zena.

“Tokiko Agenda 21ak herritarren partaidetzan oinarritutako prozesuak dira. Beharrezkoa da Ekintza Plan bat ezartzea, garapen iraunkorra udalerritik bertatik bultzatzeko”.

1994an, Europako 80 udalerritako 600 parte-hartzaile baino gehiagok manifestu zabal bat adostu zuten, *Aalborgeko Gutuna* izenekoa, zeinaren bitartez Udal Ekintza Planak idazteko asmoa azaldu baitzuten.

*Aalborgeko Gutunak edo Iraunkortasunaren aldeko Hiri eta Herrien Gutunak* udal-agintarien kudeaketa-politiketara bideratu du iraunkortasunaren kontzeptua. Gutuna sinatzean, Europako herri eta hiriek hitzeman zuten Tokiko Agenda 21 onartuko zutela, edo garapen iraunkorrerako beste tresnaren bat, eta epe luzean iraunkortasunarekin lotutako ekintza-planak planifikatuko zituztela.

Aipatutako Gutuna adostu zutenetik hamar urtera, *Europako Hiri eta Herri Iraunkorren IV. Konferentzia* egin zen Aalborgen berriz ere (2004), eta jende andana bildu zuen: milatik gora hautetsi, aditu tekniko, gobernu kanpoko erakunde eta udal-ordezkarri, 45 herrialde baino gehiagotik etorriak. Guztien helburua, Europako hiri eta herriek garapen iraunkorraren inguruan zeuzkaten konpromisoak indartzea zen, Aalborgeko Konpromisoak hitzartuz. Konpromiso hauek udalek iraunkortasunera bideratzeko gainditu beharreko erronkak jasotzen zituzten.

*Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak* beste 110 hirirekin batera sinatu zituen konpromiso hauek; horrela, *hitzetatik ekintzetara* igarotzearekin batera, euskal udalerririk guztiak ekimenera atxikitzen animatu zituen.

Eusko Jaurlaritzak azken urteetan eman duen babes garrantzitsua oso lagungarria izan da euskal udalerririk Tokiko Agenda 21ak garatzeko eta ezartzeko prozesuetan. Era horretan, *Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategian* aurreikusitako konpromisoak bete ahal izan dira:

- 192 euskal udalerririk daude Tokiko Agenda 21en prozesuetan sartuta, eta horietatik 66 ekintzak txertatzen ari dira.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk guztiek diseinatu dute beren Tokiko Agenda 21 programa.
- 2004-2005 ikasturtean, 130 izan dira Eskola Agenda 21 programa sartu duten ikastetxeak. Guztira 45.534 ikasle eta 2.881 irakasle hartu dute bertan parte.

#### 1. Gobernatzeko moduak

Erabakiak hartzeko prozesuetan demokrazia parte-hartzaileagoa indartuko dugula hitzeman dugu.

#### 2. Iraunkortasunera bideratutako udal-kudeaketa

Kudeaketarako programa eraginkorrek sortzeko konpromisoa hartu dugu (diseinua, ebaluazioa, ezarpena, etab...).

#### 3. Ondasun natural komunak

Ondasun natural komunetara ekitatzeko jo ahal izatea babesteko, zaintzeko eta bermatzeko aukerak erantzukizuna geure egiteko konpromisoa hartu dugu.

#### 4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Baliabideak modu eraginkor eta zuhurrean erabiltzeko konpromisoa hartu dugu, eta kontsumo zein ekoizpen iraunkorra sustatzeko.

#### 5. Hirien plangintza eta diseinua

Hiria diseinatzean eta plangintzak egitean estrategikoki jokatzeko konpromisoa hartu dugu, eta baita ingurumenarekin, gizartearekin, ekonomiarekin, osasunarekin eta kulturarekin lotutako gaiak denon onerako bideratzen.

#### 6. Mugikortasun hobea eta trafikoaren murrizketa

Onartzen dugu badela erlaziorik garraioaren, osasunaren eta ingurumenaren artean, eta mugikortasunaren eredu iraunkorrek sustatuko ditugula hitzeman dugu.

#### 7. Osasunerako tokiko ekintza

Herritarren osasuna eta ongizatea sustatu eta babesteko ditugula hitzeman dugu.

#### 8. Tokiko ekonomia bizi eta iraunkorra

Enplegua ingurumenari kalterik egin gabe sustatuko duen tokiko ekonomia bizi sortu eta bermatuko dugula hitzeman dugu.

#### 9. Gizarteko berdintasuna eta justizia

Erkidego integratzaile eta solidarioak ziurtatuko ditugula hitzeman dugu.

#### 10. Tokiko mailatik maila globalera

Bakerako, justiziarako, berdintasunerako, garapen iraunkorrerako eta klima babesteko aukerak erantzukizuna geuregain hartzeko konpromisoa hartu dugu.

*Aalborg+10. Etorbizunerako inspirazioa.  
Aalborgeko Konpromisoak (2004)*

Oso garatuta eta txertatuta egotean, garapen iraunkorraren kontzeptu inklusibo baten alde egiteko aukera ezin hobea ematen digu, alderdi sozialak gure Tokiko Agenda 21etan sartzea erreferente nagusietako bat bilaka dadin.

“Udalerrietan loratzen dira sormena, berrikuntza, prestakuntza, enpresen garapena eta enpleguaren sorkuntza. Beraz, udalerririk dira elkartasuna lantzeko eremurik egokienak, mailarik gertukoena direlako hain zuzen ere. Eta udalerrietatik egiten zaie ondoen aurre gizartearen zatiketa berriei eta hauen ondorioei”.

Gure udalerritako Tokiko Agenda 21etan alderdi sozialak egoki sartuz gero, iraunkortasunaren irizpideak ere ederki sartu ahal izango lirateke euren funtzionamen-

duan, eta departamentuen arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetu egingo lirateke. Honek guztiak ondokoa ekarriko luke: tokiko errealitatea hobeto ezagutzea, herritarrek eta administrazioa iraunkortasunaren inguruan hezteak, gizartearen kohesioa eta udalerraren identitatea indartzea, herriaren irudia hobetzea, epe luzean zeharka planifikatzea, udal-kudeaketa kalitate handiagokoa izatea eta udal-politikak eraginkorragoak izatea.

“Hona hemen zer den hiri iraunkor bat: etengabeko eta oinarritzko hezkuntza sustatzen ditu, eta baita teknologia berrietara jo ahal izatea; lanaren mundura sartzeko ahalbidetzen du, kalitatezko lanak eskuratuz; Oinarritzko Errentak bermatzen ditu (nahikotasuna); gizartearen baztertuta dauden taldeak integratzen ditu; talde ahulak aintzat hartzen eta zaintzen ditu; sartzeko erraza da; ohitura osasuntsuak sustatzen ditu (prebentzioa), eta osasuna babesten; parte-hartzea bultzatzen du; solidarioa da; segurua da; etxebizitza bat eskuratzeko aukera ematen du; generoen arteko berdintasuna sustatzen du; zerbitzu publiko eraginkor eta orekatuak ditu, eta kudeaketa publikoa baliabideak eta aberastasunak modu egokian banatzera dago bideratuta”.



Gizarte oparago eta zuzenago baterantz jotzeko aukera emango diguna, ingurumen garbiago, osasungarriago eta seguruago batean bizitzeko. Gizarte demokratikoa, baztertzen ez duena, osasungarria eta segurua, aukera berdinek ematen dituen, bazterketaren aurka egiten duena eta bizi-kalitate hobea ematen diguna, bai guri, bai gure seme-alabei, bai gure bilobei. Hiritar justuagoak, solidarioagoak, zuzenagoak; bakearen alde, pobreziaren kontra, guztion onerako, generoen berdintasunaren alde, baliabideak mantzearen alde, gizakien bizitzaren alde, zuzentasun sozial eta kulturalaren alde eta garatzeko aukeraren alde dihardutenak. Azken finean, gizarte iraunkorago baten alde.

### HONA HEMEN ZER DEN SOZIALKI IRAUNKORRA DEN GARAPEN-EREDU BAT:

- Gizaki guztiei duintasunez bizitzeko aukera ematen die, eta bizimodu hori hurrengo belaunaldiei helarazten die.
- Dauden baliabideak kontuan hartzen ditu.
- Errealitateak aurreikusten ditu, eta etorkizuneko beharren inguruan lan egiten du.
- Aintzat hartzen ditu gizarteko elkartasuna eta segurtasuna bezalako alderdiak, eta baita hazkunde industrial eta lehiakorra ere.
- Arreta berezia eskaintzen die gizartearen zahartze-prozesuari eta honek dakartzan erronkei.
- Migrazioek etorkizunean izango dituzten eraginak aztertzen ditu.
- Kulturara eta hezkuntzara jo ahal izatea orokortzen du.
- Enplegu-politikak eskulanaren eskaintza sustatzeari interes handiagoa eskaini beharko liokeela irizten du, eta arreta berezia eman emakumei, helduei, gazteei, ezgaiei eta etorkinei.
- Etxe duin bat eskuratu ahal izatea bermatzen du.
- Kalitatezko ingurua eskaintzen du.
- Gizartearen kohesioa indartzen eta sustatzen du, eta elkartasuna, kooperazioa eta tolerantzia hobetzen laguntzen.
- Herritarren ekintzarako gaitasuna eta osasuna bermatzen ditu.
- Parte hartzeko egun dauden mekanismoei buruzko hausnarketa sakona egiten du..

### 3. taula. Garapen iraunkorraren ereduaren definizioa.

Iturria: “Tokiko Agenda 21en alderdi soziala” ekitaldeko partaideek elkarren artean egina.



### 3. Parte-hartzea eta zeharkakotasuna, Tokiko Agenda 21en ardatz

Udalerrietako erakundeek egun dituzten arazoak (enplegua, immigrazioa, gazteria, gizarteko talde edo/eta auzo batzuen narriadura...) gero eta zailagoak dira sailkatzeko, eta alor anitzeko hurbilketa integralak eskatzen dituzte ekintza-eremu eta arlo profesional desberdinetatik. Forma desberdinak hartzen dituzten fenomenoak dira, esanahi ezberdinak dituztenak, arrazoi desberdinengatik sortuak, eta hauei guztiei aurre egiteko ez da nahikoa arazoetako edo zailtasunetako bat modu egokian konpontzea; aitzitik, guztiz beharrezkoa da administrazioek, eragile sozialek eta herritarrek modu koordinatuan ekitea.

Hiriaren gaineko irakurketa orokorra egiteko estrategia hauek dimentsio ezberdineko prozesuak sortzen dituzte, nahiz eta ildo komun bat daukaten, udal-politika publikoko alderdi zehatzetan islatzen dena.

Tokiko Agenda 21ak estrategia horien adierazpen esanguratsua dira. Iraunkortasuna zeharkako ekintzen ikuspuntu bihurtzen da, eta politika hurbilak edukiz eta proiektuz mami-tzen ditu.

#### **Sant Boi de Llobregat-eko Tokiko Agenda 21: berdea eta solidarioa**

Sant Boi de Llobregateko Tokiko Agenda 21 pixkanaka joan da garapen iraunkorreko dimentsioak txertatzen, eta garapen orekatuarekin, ekitatearekin, kalitatearekin, bakearekin, elkartasunarekin, gizarteko justiziarekin eta herritarren partaidetza zein konpromisoarekin lotutako hainbat alderdi sartu ditu bere edukietan.

Lan-batzordeak sortu ziren honako gaiak lantzeko: immigrazioa, jarduera ekonomikoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, etxebizitza, eremu publikoa, osasuna, ongizate soziala eta balioetan hezteak. Mahai-ingururik ere antolatu zen (diagnostikoa eta Ekintza Plana diseinatzeko), garapen iraunkorraren hainbat alderdi aztertzeko (ingurumena, gizartea eta ekonomia).

Horrela, Ekintza Plan bat sortu da, helburu hauek dituenak: kultura, elkarriketa eta herritarren parte-hartzea sustatzea, eta hazkunde arduratsua izatea. Hori guztia, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Sant Boi udalerririk *II Premios Ecomed-Fundació Fòrum Ambiental a la Ciutat Sostenible* lehiaketako sari nagusia lortu zuen 2004an, udalerririk iraunkortasuna udal-politikako arlorik nagusien artean kokatzeko hartutako konpromisoagatik.

Euren aurreikuspenetan epe ertaina eta luzea sartu dituzten politika publikoak planifikatzeko prozesu moduan finkatu dira. Beren proiektua, neurri handi batean, garapen iraunkorrek zeharkakotasunerako duen gaitasunaren mende dago, udalerriko alor publikoko eta ez publikoko eremu guztietan. Bestalde, kultura aldatzen dute, eta herritarrek zein tokiko gobernuek euren erantzukizuna onartzen dute udal-politikak prestatu eta gauzatzeari dagokienez.

### TOKIKO AGENDA 21EN POTENTZIALTASUNAK

- Aukera bikaina eskaintzen dute merkatuaren eta gobernuen helburuak, balioak, jarduerak, jarrerak eta papera birdefinitzeko, oraina eta geroa hobetzearen. Betiere, hiritar guztien parte-hartzearekin eta belaunaldien arteko elkartzunarekin.
- Filosofia (desberdintasunaren aurkako borroka) eta metodo (herritarrengandik hurbilen dagoen arlotik parte-hartzea) gisa, tresna egokiak izan daitezke gure herrien eta hirien irakunkortasuna kudeatzeko.
- Ideien, kontzeptuen eta praktika berrien laborategi bilakatu dira, oso interesgarriak, eta ezin hobeak dira gobernatzeko modu zaharrak (eskema hierarkikoetan, arrazionaletan eta norabide bakarrekoetan oinarrituak) gainditzeko. Formula berritzaileez baliatzen dira gobernuen eta gizartearen papera birdefinitzeko.
- Udalerrien eremuan kasu paradigmaticoa dira parte-hartzaileari dagokionez, eta kudeaketarako tresna ere izan daitezke, osagai estrategiko handiagoa baitute; izan ere, politiken zeharkakotasuna eta epe luzerako plangintza iraunkorraren prozesuetan erkidegoen integrazioa sustatzen dituzte.
- Hainbat mailatan koordinatzeko eta komunikatzeko prozesuak sortzen, bultzatzen eta sustatzen dituzte. Aukera bat osatzen dute arlo politikoan, teknikoan eta hiritarrei zuzendutakoan, hobekuntzak sartzten dituztelako kudeaketaren eraginkortasunean.
- Sare parte-hartzaileetako eragileei garapen iraunkorraren arloan dauzkaten konplizitateak biderkatzeko eta konpromisoak zeinerantzukizunak indartzeko aukera ematen diete.
- Garapen iraunkorraren gizarte-dimentsioa barne-hartzen duen eta tokiko administrazioei eginkizun ikuskatzaile arinagoa eta habilitatzaileagoa ematen dien ikuspuntu berria hartuta, legitimitate eta funtzionalitate handiagoko irtenbideak proposatzeko aukera ematen dute.

#### 4. taula. Tokiko Agenda 21en potentzialtasunak.

*Iturria: Guk geuk egina.*

Aukera ematen dute gai berriak sartzeko, itxaropen berriak asetzeko eta hiritarren parte-hartzea bultzatzen duten sareko gobernuen ereduera bideratzeko, non ezinbestekoak baitiren elkarrekintza eta erlazioatzeko beharra.

Interakzioak egon behar du herritarren eta instituzioen artean (parte-hartzea), eta azken hauen barruan ere bai (zeharkakotasuna). Gainera, harremanak izan behar dira administrazioetik "kanpo" daudenekin (antolatutako edota antolatutako gabeko herritarrek) eta "barruan" daudenekin.

Parte-hartzea eta zeharkakotasuna kontzeptu bakar baten (erlaziozko gobernu edota sareko gobernu) bi dimentsioak dira (kanpokoa eta barrukoa). Kontzeptu hori Tokiko Agenda 21en prozesuetako oinarritzko zutabea da, sektoreen eta erkidegoaren integrazioa bideratzen dituelako.

"Garapen iraunkorra lortzeko ardura guztiona dela onartzen dugu. Herritarrek euren burua inplikatzeko eta lan egitea nahi dugu, Gobernu maila guztiekin eta udalerrri mailan inplikatuta dauden pertsona guztiekin lankidetzan, GKEak barne. Helburua gure ikuspegi globala modu integratuan eta holistikoan lortzea da.

... barne-merkatuko politiketan, araudi garrantzitsuetan eta finantzatzeko programetan zein sistemetan gizarteari eta ingurumenari buruzko alderdiak sartzeko.

... Osasunerako ekintza-planak eta garapen irakunkorrerako planak (Tokiko Agenda 21) -besteak beste Lisboaako Ekintza Planean oinarrituak- garatzeko eta xertatzeko konpromisoak hartzeko.

... euren estrategia korporatiboetan ingurumenari, osasunari, segurtasunari eta arriskuari buruzko alderdiak sartzeko.

*Hanoverreko Deklarazioa (2000)*



#### Hanoverreko (Alemania) Tokiko Agenda 21: gizartearen kohesioaren alde

Hanoverreko Tokiko Agenda 21ak gizartearen kohesioari eta justiziarri lotutako ekintzak hartzen ditu barne. Laguntzak ezartzen ditu diru-sarreak baxuak dituzten eta baztertuak izateko arriskuan dauden familientzat (haurtzaindegietara jotzeko, ikastetxeetara...), eta auzo txiroetan bizi direnen bizikaltatea hobetzeko ekintzak aurreikusten (tabernetan eta dendetan elikagaiak biltzeko programa, herritarren parte-hartzea sustatzeko programak, tokiko nekazal-produktuen kontsumoa bultzatzeko kanpainak...).



## HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ABANTAILAK ETA ERABILGARRITASUNAK

- Bestela lortzerik ez dagoen informazioa ematen du.
- Gatazkak ekiditeko estrategia ona izan daiteke.
- Erabaki publikoei legitimitate handiagoa ematen die.
- Herritarren erantzukidetasuna sustatzen du.
- Arazoa zein den zehazteko aukera ematen du, baita arazoak elkarren artean eratzeko ere.
- Herritarrek eta udal-taldeak elkarrekin jarduteko ohitura sortzeko aukera ematen du.
- Parte hartzeko eremua zabaltzeko aukera ematen du, ohiko iritzi-emaileetatik harago joatekoa.
- Biztanleen sektore desberdinen artean komunikatzeko bideak formalizatzeko aukera ematen du.
- Arazoak modu eraginkorragoan ebazteko aukera ematen du, beharren inguruko diagnostiko hobek egiten direlako eta irtenbideak biltatzen zein baliabideak erabiltzean aberastasun handiagoa izaten delako.
- Erantzuna erkidegoan baino ez duten arazoen giltza da.
- Gizarteratzea sustatzen du, erkidegoak indartuta eta egituratuta.
- Kide izatearen sentimendua garatzen du, eta jendea bere inguruarekin identifikatzea bultzatzen.
- Hartutako erabakiak hobeto ulertzen laguntzen du.
- Erabakitako esku-hartzeen jarraipena egiteko aukera eman dezake.
- Epe luzerako estrategiak prestatzeko aukera ematen du.

### 5. taula. Herritarren parte-hartzearen abantailak eta erabilgarritasunak.

Iturria: Guk geuk egina.

### 3.1. Parte-hartzea, beharrezko inbertsioa

Tokiko erakundeek, sortzen zaizkien arazoak gero eta konplexuagoak direla ikusita, eta euren artean lotuta daudela, kudeaketa integraleko prozesuak diseinatze-ko joera daukate, parte-hartze handia eskatzen duten administrazio-eremu eta maila desberdinetako politikak garatzen (gizartearen ongizatea, etxebizitza, lana, hezkuntza, kultur integrazioa...).

Parte-hartzea ez da tokiko kudeaketa zailtzen duen arazo bat, baizik eta iraunkortasuna lortzeko beharrezkoa den inbertsio bat –nahiz eta nahikoa ez izan–.

“Iraunkortasuna lortzeko, aldaketa handiak egin behar dira gure bizimoduan eta gizartearen zein ekonomiaren antolaketan. Aldaketa horiek guztiak gizartearen adostasun zabalarekin eta denon esfortzuekin baino ezin izango dira bideratu.”

Garapen iraunkorraren paradigmak proposatzen digun ikuspuntu berritik begiratuta, tokiko administrazioek eremu zabala daukate kolektibo hauek erabakiak hartzeko prozesuetan inplikatzeko lortzeko; izan ere, instituzioak dira sare soziokultural emergenteak aintzat hartzeko eta artikulatzeko gaitasun handiena dutenak. Elkarren artean ekiteko modu berrien bidez, indartu egin dezakete euren burua antolatze gaitasuna, balioak identifikatu eta artikulatu ditzakete, eta barne-buru-

zagitza egikaritzeko gaitasuna aitortu eta baliozkotu dezakete.

Parte-hartzeko espazioen eta prozesuen xedea ez da gutxi batzuen arteko akordioak eta itunak lortzea bakarrik; espazio irekiak eta inklusiboak ere izan behar dute. Hauetan, kargu politikoei, teknikariak eta herritarrek gai izan behar dute elkarren arteko desberdintasunak aitortzeko eta botere politikoa partekatze, elkarren artean ikuspuntu ezberdinak daukatela eta prozesuaren emaitzak zeintzuk izango diren ez dakitela onartuta.

Kultura parte-hartzailea haurtzarotik bertatik hasita ikasten da, ikastetxeetan egiten den lanaren eta programazio kontzientearen bidez. Hezitzaileek aktiboki parte hartzea, prozedura kooperatiboak planifikatzea eta kanalak hornitzea (eskolako parte hartzeko foroak...) eskatzen du.

“Hezkuntza, trebakuntza eta kontzientziazio publikoa ezinbestekoak dira pertsonen balioak eta jarrerak aldatzeko, eta gizarte iraunkorrago lortzeko. Gizarte horretan pertsonak errealitatea ebaluatze eta aldatzeko gaitasuna izango lukete, baita erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko ere”.

Demokratikoki bizitzen eta parte hartzen ikasten da demokratikoki bizitzen eta parte hartzen. *Eskolako Agenda 21ak*, Tokiko Agenda 21en zati diren aldetik, ku-

deaketa parte-hartzailerako eta garapen iraunkorrak behar dituen gaitasunak, balioak, ohiturak eta ezagutzak garatzeko bitartekoak dira.

“Ingurumen-heziketak gizartearen ongizatearekin lotutako alderdiei arreta handiagoa ematea eskatzen du, ikasleei negoziatzeko behar diren trebetasunak irakastea, foroetan parte hartzea, erabakiak hartzea, telekomunikazioak, etab. Halaber, erkidegoa aldatzeko prozesuetan gehiago parte hartzea, eta gainerako herritarrekiko erantzukidetasuna bultzatzea eta txirolekiko elkartasuna lantzea.

Gizarte osoak eta hezkuntza-sistemak ahaleginak egin behar dituzte bakearen, gizarteko justiziaren eta iraunkortasunaren idealetarantz jotzeko. Bide honetan, tokiko ekimenak eta Eskolako Agenda 21 parte hartzeko foro zein tresna gisa erabiliko dira, kudeaketa hobetzeko eta gazteen ezagutzak handitzeko”.

*Irakunkortasunerako heztea. Eskolako Agenda 21: Eskolarako gida bat. Eusko Jaurlaritza (2002)*

### Tolosako Eskolako Agenda 21en kudeaketa eta dinamizazioa

Udalerriko ikastetxe guztiek daukate euren Eskolako Agenda 21, eta ingurumen-heziketarako ekipamendua ere badute (Zuloaga Txiki), Agenda horiek dinamizatzeko trebakuntza jaso duten langileekin. Jorratutako gaien artean, mugikortasuna, aisia, eremu askeak zein elkarbizitza nabarmendu behar dira.

### Leergeld proiektua y “Haurrak euren elementuan” (Den Bosch, Holanda): haurrek gizarteko jardueretan parte hartzea eta haurrak iraunkortasunean heztea

Leergeld Fundazioaren filosofia honako ideian oinarritzen da: hiriko haur guztiek izan behar dute udalerriko gizarte-sareetan integratzeko aukera. Proiektu honi esker, bazterketa sozialetik edota ekonomikotik eratorritako arazoak dituzten familietako haurrek gizarteko jardueretan parte hartzea lortzen da, betiere kirolerako eta aisialdirako klubetan parte hartuko dutela bermatuta, eta musika-hezkuntza jasotzeko aukera emanda. Helburua harremanak estimulatzea eta euren aukera pertsonalak handitzea da.

Haurrak euren elementuan zeharkako proiektua da, eta kultur-aniztasunaren balioetan heztea du helburu nagusi. Heziketa hori udalerriko haurrek Holanda, Errumania eta Maroko bezalako herrialdeetan uraren, lurraren, suaren eta airearen kudeaketan dauden desberdintasunei buruz egindako ikerketa-lanean dago oinarrituta.

### 3.2. Zeharkakotasuna, konplexutasunari emandako erantzuna

Segmentatutako, hierarkizatutako eta espezializatutako egitura tradizionalak eraginkorrak izan dira ohiko jarduera sinpleak lantzeko, baina ez, ordea, arazoa hain argia ez denean edota konplexuagoa denean.

Halako egoeraren aurrean, konplexutasun horri erantzuna eman ahal izateko, instituzio batzuek hainbat mekanismo diseinatu dituzte, erantzun artikulatuagoak lortzeko aukera ematen duten ekintzetan eta harremanetan oinarritutako antolakuntzarako eredu berriak martxan jarrita.

Lan egiteko era aberatsagoak dira, dimentsio ugariak, baina baita konplexuagoak eta zailagoak ere. Besteen ideiak onartzean oinarritzen da, erkidegoan nolabaiteko garrantzia duten pertsonaia publikoen ideiak kontuan izatean, elkarrizketari, komunikazioari zein ikuspuntu desberdinei lehentasuna ematean eta garatzean, taldeko lanean, eta gureak ez diren ideiak geureak balira bezala defendatzean. Hori guztia, herritar guztientzako ongizatea lortzeko.

Prozesu motel eta konplexuak dira, benetako erronkak. Espezializazioan, profesionalismoan eta segmentazioan errotutako lan-dinamiken erresistentziekin talka egiten duen lan egiteko modua da.

Egungo gizarte konplexuen erronkei eta eskaerei erantzuten dieten instituzioak antolatzen dituzten kultura berri bat behar da, jarduteko modu berri bat. Bere xedea ez da aparteko baliabideak lortzea, baizik eta eskura dauden baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzea. Aldaketa kultura da, harremanak gobernuko eta udal-administrazioko estrategiaren erdian kokatzen dituen eraldaketa.

Iraunkortasunak konplexutasuna, elkarrekiko menpekotasuna, globalitatea, zalantza, inertzien haustura, erreforma handiak egiteko beharra eta abar dakartza berarekin, eta Tokiko Agenda 21ak tresna erabilgarri eta eraginkorrak dira, eta testuinguru bikaina, beharrezkoak diren aldaketa inbidualak zein sozialak egiteko.

Tokiko Agenda 21ak *prozesu irekia, aldakorra eta malgua dira, hainbat eragilek negoziaketak eta aliantzak egiteko espazioa iraunkorrak, eta ongizatearen kultura sortzeko tresna paregabeak. Gizartearen eraldaketan eta elkarrizketa zein adostasuna sustatzean oinarritzen dira, eskubide sozialak eta politikoak artikulatuz, gizartearen erantzuna aintzat hartuz eta hiriarentzako proiektu globalean ongizatearen politika txertatuz.*

### Falkenberg-eko (Suedia) Tokiko Agenda 21: herritarren parte-hartzea bultzatzen

Falkenbergeko (Suedia) Tokiko Agenda 21 sektore anitzeko prozesua da, adostasun zabal batean oinarritua. Gehienbat tokiko administrazioak finantzatu du, eta adituak zein boluntarioak aritzen dira bertan lankidetzan. Lan handia egin du herritarrek euren burua inplikatzeko eta parte hartzeko, foroan, lan-taldean, mintegien, lankidetzako proiektuen eta abarren bidez. Horrela, denetarik kolektibo eta erakundeak sartu dira prozesuan (emakumeen taldeak, adinduak, enpresa txiki eta ertainak, ikastetxeak...).

Etorrinek prozesuan duten parte-hartze txikia minimizatzeko, proiektu bat jarri dute abian jatorriz atzeritarra den jende gehien biltzen den guneetan. Haurrak ere inplikatzen dituzte, eta hain zuzen ere haiek bihurtzen dira prozesuaren benetako sustatzaileak.

### Albertslund-eko (Danimarka) Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21en Bulegoa martxan jarri zuten lehenengo udalerrietako bat da *Albertslund*, eta azken urteotan aurrerapen handiak lortu ditu iraunkortasunaren arloan. Bere Ekintza Planari dagokionez, honako alderdiak nabarmendu behar dira: hiriko ikastetxe guztietan elikagai ekologikoak erabiltzen dituzte, parkeak eta lorategiak modu iraunkorrean kudeatzen dituzte, eta udalerriko enpresek esperientziak trukatzeko eta lankidetzak adosteko Foroa jarri dute martxan.

Danimarkako beste udalerririk batzuk ere (*Slagelse*, *Stostrom*...) hainbat ekintza burutu dituzte Tokiko Agenda 21en arloan, iraunkortasunean oinarritutako ikuspuntutik (kontsumitzaileen elkarte batekin lankidetzan produktu ekologikoen supermerkatu bat sortu dute, Tubaek ibaitik gertu dauden hezeguneak babesteko murriztu egin dute ongarrrien eta pestiziden erabilera, inguru hartako nekazariari aholkularitza teknikoak eta heziketa eskainita, etab.).

“Etorrinak gizarteratzeko politikek helburu zabalak behar dituzte izan. Hor sartu behar dira informazio-zerbitzuak, orientazioa eta babes linguistikoa, helduen heziketa, lana eta lan arloan sartzea, aholkularitza eta babes juridikoa, osasuna, etxebizitza, herritarren parte-hartzea, emakumeen babesa, haurren zein gazteen irakaskuntza eta tokiko populazioari zuzendutako ekintzak. Lan egiteko eta bizitzeko leku baten beharrenda dauden pertsonen laguntzeko modu bat da, eta gu geu ekonomikoki zein kulturalki aberasteko aukera paregabea.”

### 3.3. Zenbateraino erantzuten diote Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Agenda 21ek parte-hartzea eta zeharkakotasuna bultzatzen dituen eredu bikain horri?

Lurraldearen ikuspegi integratua kontuan izanda, euskal udalerririk hainbat ekintza garrantzitsu burutzen eta garatzen dituzte sustapen ekonomikoari, okupazioari, hiriaren proiektuari, gizartearen ongizateari eta herritarren prebentzioarako edo/eta segurtasunerako politikei lotutako gaietan.

Gaur egun, politiken ohiko definizio sektoriala eta zerbitzuen kudeaketa segmentatua zein espezializatua formulazio integrarekin prozesu berritzaileekin eta politiken kudeaketa horizontalarekin elkarbizi dira. Sailen zorroztasun klasikoan artean, lekua egin dute zeharkako planek, oinarritzat hainbat irizpide hartuta: lurraldea (auzo degradatuak, erdigune historikoak, etab.), gaia (bazterketa, immigrazioa, elkartasuna, etab.), adina (haurtzarora, adinduak, etab.), gizarte kolektiboak (ezinduek, guraso bakarreko familiak, etab.).

#### 3.3.1. Herritarren parte-hartzea, fruituak ematen hasi den esfortzua

Tokiko Agenda 21ek *elkartzeko espazioak* sortzeko aukera ematen dute, garapen iraunkorrerako helburuak finkatzeko eta epe luzearako estrategiak planifikatzeko. Estrategia hauek erabakiak hartzeko, ardurak berengantzeko, kapital soziala sortzeko, boluntarioen lana sustatzeko eta mugitzen ez diren herritarrak inplikatzeko aukera ematen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Agenda 21 ugarri jarri dituzte martxan, hainbat eta hainbat inguruetan. Hala, herritarren partaidetza bultzatzeko mota ugari prozesuak abiarazi dira. Prozesu mota horien ezaugarri komun gisa, ondokoak nabarmen daitezke.

#### a. Prozesuaren ideia eta ikuspuntua (nork hartzen du aurrea?)

Udalak berak hartzen du, *Aalborgeko Gutuna* sinatzean, iraunkortasuna bultzatzeko konpromisoa. Horretarako, udalaz gailuriko politika batean oinarritzen da, eta honek berau diseinatzeko zein txertatzeko laguntza ekonomikoak eta aholkularitza teknikoak ematen ditu.

Parte hartzeko prozesuak gobernu eta oposizioko taldeak inplikatzen dituen akordio politiko zabal batean oinarritzen dira. Partaidetza *top-down* edo *“goitik behera”* motakoa izan ohi da; izan ere, instituzioak dira parte hartzeko prozesuak zuzentzen eta kontrolatzen dituztenak, instituzioen eta gizartearen arteko akordioa eta topagunea bultzatuta.

**b. Parte-hartzearen eragina eta jorratutako gaiak (zer gai jorratzen dira?)**

Parte-hartzea sektoriala da, ingurumen-izaerakoa, nahiz eta iraunkortasunaren aldeko prozesu orok behar duen ikuspegi integral edo holistikoa ere izan nahi duen.

**c. Eragileak (nork hartzen du parte?)**

Parte-hartzea borondatezkoa izaten da (herritar guztiei irekia) eta, biztanle gehien dituzten udalerrien kasuan, ohikoa da -operatibitate-arrazoiak tarteko- ordezkarien bidez parte hartzea (erakundeen, elkarten eta talde antolatuen ordezkarien bidez).

Eremu horiek etengabe hobetzeko gero eta interes handiagoa dago (heziketa-ikastaroak, parte hartzeko mekanismoak martxan jartzeko giden argitalpena, Eskolako Agenda 21 ikastetxeetan ezartzea...) eta, horregatik, balio handiko praktika emergenteak ari dira sortzen.

**d. Prozesuaren jarraitasun gradua (noiz hartzen da parte?)**

Nahiz eta aldi baterako edota sintesiko esperientzia parte-hartzaileak egon (fenomeno puntual eta isolatua, non partaidetza erabakia hartzeko une jakin batera mugatzen den), gero eta gehiagotan diseinatzen eta ezartzen dira parte hartzeko prozesu egonkorak.

**e. Prozesuaren gaitasuna elkartzeko sarea eta kapital soziala sustatzeko**

Parte hartzeko espazio horiek kontsolidatzen doazen heinean, aldi baterako izaera hartzen, eta jatorri desberdineko eragileak eta kolektiboak hartzen, nabarmen handitzen da sare asoziatiboak estimulatzeko gaitasuna.

**f. Erakunde aldaketak eta tokiko demokrazia berpiztea (erakundeak berritzea)**

Mugimendu itxaropentsuak ikus daitezke -batez ere, prozesurik aurreratuenak dauzkaten udalerrietan-. Horrek optimismo apur bat izateko aukera ematen du, prozesu hauek instituzioak berritzeko duten gaitasunari dagokionez.

Orain arte egindako aurrerapen eta berritzapen garantzitsuei esker, handitu egin dira herritarren konplizitatea eta pertsonen konpromisoa. Konplizitate eta konpromiso horiek etorkizuna aukerez betea ikusten laguntzen dute; izan ere, gure udalerrietako Tokiko Agenda 21ak ezin hobekak dira finkaturik dauden helburuak lortzeko.

**3.3.2. Zeharkakotasuna, etorkizunerako apustua**

Esan daiteke Tokiko Agenda 21ak, ekintza publikoen eta pribatuen eremu guztiak zeharka gurutzatzen dituen ikuspuntu integral batetik begiraturik, ingurumenaren aldetik garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra lortzen laguntzeko programak direla. Garapen iraunkorraren ingurukoak ez ezik, gero eta konplexuagoak diren gizarteak gobernatzeko modu berriak sortzearen inguruko erronkak ere planteatzen dituzte.

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan martxan jarritako Tokiko Agenda 21ak oso ezberdinak izatean zaila den analisi zehatz bat egitea, badira prozesu guztietan errepikatzen diren zenbait ezaugarri.

**a. Prozesuaren ideia eta ikuspuntua (nork hartzen du aurrea?)**

Prozesua diseinatzen eta sustatzen parte hartu duten Administrazioaren arloak ingurumenari lotutako gaietan aritzen direnak dira, gizarte-zerbitzuei, gazteriari, berdintasunari, urbanismoari, enpleguari eta abar lotutako gaiez arduratzen direnen lankidetzak -gero eta ohikoagoa- izan ohi dutenak.

**b. Parte-hartzearen eragina eta jorratutako gaiak (zer gai jorratzen dira?)**

Tokiko gobernuen egiturari hainbat zailtasun sortzen dira zeharkako erantzukidetasun mugatuari lotuta, prozesu parte-hartzaileetatik eratorritako emaitzak sustatzeko eta onartzeko. Ondorioz, mugatuak izaten dira gaikako fokatzekoak.

**c. Eragileak (nork hartzen du parte?)**

Zeharkakotasunaren arloan egiten diren aurrerapen kontzeptualek zailtasunak izaten dituzte plano operatibora aldatzean. Iraunkortasunerako politikak praktikan aplikatzean zeharkakotasuna islatzea ez da batere erraza; diziplinak eta botere publikoak, parte hartzen duten eragile sozialak barne, oso espezializatuta eta sektorializatuta daudelako.





#### d. Prozesuaren jarraitasun maila (noiz hartzen da parte?)

Gure tokiko administrazio batzuetan lanean ari diren talde sustatzaileen borondate onari eta antolakuntzaren arloan aurrera eramaten ari diren aldaketei esker, aurre-rapen garrantzitsuak egin dira era honetako praktiken jarraipenari dagokionez.

#### e. Prozesuaren gaitasuna elkartze sarea eta kapital soziala sustatzeko

Prozesu hauek kapital sozialeko sareak sustatzeko daukaten gaitasuna –konfiantzako, akordioko, trukeko, kooperazioko eta parte hartzeko dinamikak sortzeko duten indarrari dagokionez–, mugatua da oraingoz, baina hazi egingo dela itxaro da.

#### f. Erakundeen aldaketak eta tokiko demokrazia berpiztea (erakundeak berritzea)

Zailtasunak daude teoriarik lortu nahi diren zeharkako fokatzeko kontsolidatzeko eta aurrerapen kontzeptuak plano operatibora eramateko, baina hainbat mugimendu itxaropentsu antzematen dira.

Hurrengo urteetan, euskal gizarteak aldaketa handiei egin beharko die aurre hainbat arloan (hezkuntza, osasuna, enplegua, segurtasuna, kultura, etxebizitza, etab.). Arlo horiek guztiek ekintza kolektiboko arazoak planteatzen dituzte, eta konpontzeko modu bakarra elkarren artean adostutako diagnostikoak finkatzea da; izan ere, diagnostiko horiei esker, parte-hartze hierarkizatuak eta progresiboak zein helburuak planteatu ahal izango dira.

“Enplegua gizarteratzen laguntzen duen faktorea da, eta oso harreman estua dauka pobreziarekin, osasun-egoerarekin eta familiako harremanekin. Gure herrien eta hirien iraunkortasunari eragiten dion arazo nagusienetako bat pobrezia da, eta, aldi berean, beste arazo batzuen jatorria ere bada. Hori dela-eta, inplikaturik dauden faktoreak kontuan izango dituzten politika integralak onartu behar dira.”

Ikuspuntu berri hau ikus daiteke bai tradizionalki zentralizatuta egon diren ongizate-esparruetan gertukotasuna birbaloratzean, bai tokikotasunak iraunkortasunari, garatzen laguntzeari, immigrazioari, eta abar lotutako gaietan erantzunerako eta lanerako espazio nagusi gisa ulertzeari buruzko akordio politikoan eta sozialean.

Ezinbesteko erronka da, eta interesa duten alde guztien lankidetzat eskatzen du tokiko kudeaketan iragane-ko inertiak gainditzeko eta etorkizunari aurre egiteko, errealitateari hobeto egokitzen zaizkion lanerako modu berriei. Errealitate konplexuak direnez, irtenbide integralak eta partekatutako eskatzen dituzte, eta hain zuzen ere Tokiko Agenda 21ak dituzte erronka berri horiei egokituta kudeatzen aritzeko erreminta.

#### Medina del Campo-ko (Valladolid) Enplegurako Tokiko Ekintza Plana (PAL-E)

ICLEIk (Ingurumen arloko Tokiko Ekimenen Nazioarteko Kontseilua) eta Europar Batasuneko Enpleguaren eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusiak proposatutako PAL-Eren lan-metodologiak aberastu egiten du Tokiko Agenda 21en prozesua. Halaber, berrorekatu egiten ditu ingurumen arlokoak baino ez diren dimentsioak eta iraunkortasuna erdietsi nahi duen prozesu orotan agertu behar diren alderdi sozialak eta ekonomikoak.

PAL-E Europako Batzordeak eta ICLEIk garatu duten “Enpleguaren aldeko Ekintza Planetarako Tokiko Sarea” proiektu pilotuaren emaitzetan dago oinarrituta. Bertan, Europako sei hirik hartu zuten parte. Tokiko Agenda 21en metodologian oinarrituta, herritarren parte-hartzea dinamizatze eta ingurumena zein enplegu-politikak lotzeko erremintak dauzka.

Medina del Campoko Enplegurako Tokiko Ekintza Plana, udalerririk honetan 2002. urteaz geroztik garatzen ari diren gogoeta estrategikoaren prozesuan integratzen da. Tokiko Agenda 21 prozesu horretan sartuta dago hain zuzen ere, Medina XXI. mendean hiri iraunkor gisa diseinatze gakoak aurkitzeko asmoz.

Gako horietako bat enplegua da. Erabakiak hartzeko eta hiria kudeatzeko prozesuetan, errealitate ekonomikoa, gizartea eta ingurumena integratzen dituen ikuspuntua hartzen da oinarri gisa.

Enpleguaren aldeko Tokiko Ekintza Planak hainbat alderdi bermatuko dituzten ekintza eta politikak zehaztuko ditu, eta martxan jarriko: baliabideak eskuratzea eta berrerabiltzea, gizartearen erosotasuna, garapen ekonomikoa eta Medina del Campoko egungo nahiz etorkizuneko belaunaldientzako oparotasuna.





### Gueñesko Enpresen Agenda 21

Gueñesko Enpresen Agenda 21aren helburu nagusiak bi dira: enpresen eta Udalaren arteko harremanak konsolidatzea, eta bi aldeak udalerririk ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik duen kalitatea hobetzeko elkarrekin aritzea. Bigarren mailako helburuak, berriz, udalaren iraunkortasunaren aldeko lan-taldea osatzea, Udalaren eta udalerriko enpresen artean Parte Hartzeko Foro bat ezartzea, egindako diagnostikoetatik abiatuta Enpresen Ekintza Plana egitea, udalerriko enpresak ordezkatuz Tokiko Agenda 21ean parte hartzea, udalerriko ingurumen-kalitatea hobetzea, enpresa bakoitzaren beharretara egokituta langileen prestakuntza hobetzea, udalerriko langabeak enpresen intereserako heztea eta aukeraberdintasunaren alde lan egitea dira.


Udalak, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren laguntzarekin, Lantegian Ingurumen Orientazioa egiteko aukera eskaini die enpresei. Zerbitzu hori doakoa da enpresentzat eta Auren Consultores Norte aholkularitzak ematen du, IHOBEren babesean. Hala, teknikari bat enpresara joaten da, ingurumenaren kudeaketan lehenetsia duten alderdiak identifikatzeko, eta Auren-en (IHOBEk kontratatutako aholkularitza-enpresa) zein enpresa eskatzailearen artean izaera konfidentziala duen txostena idazteko. Bertan, enpresarentzako ekintza-plan zehatza ere sartzen da.

Lantegian Ingurumen Orientazioak egin ostean, Udalak Udalerriko Ingurumenaren Egoeraren Txostena jasoko du, eta hain zuzen ere bertan egongo da Gueñesko enpresa-sektoreari zuzendutako Ekintza Planaren proposamena. Aldi berean, udalerririk Diagnostiko Sozioekonomikoa egin dute Ingurumen Arloan, eta bertan udalerririk arlo honetan dituen beharrak ageri dira.

Hortik aurrera, udal-arduradunek aldizka bilerak egingo dituzte nagusiekin zein langileekin, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik udalaren kudeaketa hobetzeko proposamen zehatzekin ekintza-plan bat egiteko.



“Udalek ahalmen handia daukate oparotasun ekonomikoan eta lanpostuen sorreran eragiteko. Ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde honen ondorioz sortutako etekinak modu zuzenagoan banatu beharko dira (gizarte-bazterketa saihestuta edota murriztuta), eta ingurumena zein ingurua errespetatzen dituen garapen iraunkorra bideratu beharko da”.



## 4. Tokiko Agenda 21etan gizarte-dimentsioa tratatzeari buruzko diagnostikoa EAEn

**E**uskal Autonomia Erkidegoan martxan jarri diren Tokiko Agenda 21 gehienek, iraunkortasuna kudeatzeko tresna gisa beren indarra mugatzen duen taxua daukate.

Udalerrri bateko garapen iraunkorra kudeatzeko edozer prozesuk ingurumenaz gain, arlo ekonomimoa eta soziala ere izan behar ditu kontuan. Horrexegatik, beharrezkoa da guretzat kontzeptuaren esanahi osoa eta holistikoa berreskuratzea. Puntu horretara iristeko, ordea, nahitaezkoa da iraunkortasun kontzeptua berriro formulatzea; ingurumenaz harago doa kontzeptu hori, arlo ekonomikoraino eta sozialeraino.

Edonola ere, Tokiko Agenda 21 hauetako gehienak nagusiki ingurumenari lotuta egotea negatiboa ez bada ere, oso txertatuta egotean eta herritarrek ezagutzean, beharrezkoa izango da bere edukietan gai berriak sartzea.

Alderdi sozial eta ekonomikoak ahalik modurik onenean eta eraginkorrean lantzeko, beharrezkoa da aurrez integrazio mugatu hori eragin duten arrazoiak zehaztea.

### 4.1. Arrazoi instituzionalak

#### a. Udalerriaz gaindiko esparruan koordinazio egokiaren gabezia

Erakundeek apustu garbia egin dutenez garapen iraunkorrari lotutako gaien alde, ingurumenaren arloan aurrerapen handiak egin dira, nazioartean aintzatespena eta oihartzuna izan dituztenak. Lan-ildo hauetara beste sail batzuk berandu sartu izanak, ordea, hainbat gabezia sortu ditu koordinazioan, eta horrek kudeaketa politikoko modu berri hauen ahalmen guztiak ezin garatu izana eragin du. Zorionez, joera hori zuzentzen ari da, eta etorkizuna oso itxaropentsu agertzen da.

#### b. Konbentzimendu politikoaren maila mugatua

Tokiko eremuan, kasu batzuetan konbentzimendu politikoa mugatua dela ikus daiteke, kudeaketa publikorako modu berriak (zeharkakotasuna eta parte-hartzea) txertatzeak beldurra eta eszeptizismoa eragiten dituelako, eta txertaketa hori egiteko pizgarririk ez dagoelako. Horiek era honetako prozesuak zuzenduko dituen erreferentzia politikorik ez izatearen arrazoi eta ondorio dira aldi berean. Ilusio handia egiten du gure kargu politikoez iraunkortasunaren paradigma berria barneratzeko prozesua abian jarri izateak. Horretan erabakigarria izan da Tokiko Agenda 21ak arrakastaz txertatu izana. Horrek guztiak erronka berrien aurrean baikor agertzera eramaten gaitu.

### c. Konbentzimendu teknikoaren maila mugatua, kudeaketa publikorako modu berriak (zeharkakotasuna eta parte-hartzea) sartu izanagatik

Elkarren kontrakoak direnez Tokiko Administrazioiko organigrama teknikoan pisu berezia duten langile teknikoek eta Tokiko Agenda 21ak martxan jartzeaz arduratzen diren teknikariek -gehienak duela gutxi lanean hasitako gazteak- zuzendutako zerbitzu tekniko klasikoak (Hirigintza, Ogasuna...) interesak eta helburuak, ikaragarri zaila egiten da iraunkortasunaren ikuspegitik arrakastaz lan egin ahal izateko konplizitateak sortzea.

## 4.2. Arrazoi metodologikoak (edo inplementaziokoak)

### a. Tokiko erakundeei aholkuak emateko kontratatutako aholkularitzak ingurumenaren arlokoak izatea

Era honetako prozesuetan aholkularitza-lanak egiten dituzten enpresa gehienek ingurumen-profila daukate. Hori dela-eta, diagnostikoetan ingurumen-izaerako ekintzak nagusitzen direla eta alderdi sozialei zein ekonomikoari erreferentzia gutxiago egiten zaiela nabarmentzen da. Garapen iraunkorrean integralitateak eskatzen dituen beharrei hobeto egokitutako profila duten teknikari gutxi aritzeak zaildu egiten du prozesuan ikuspuntu berriak sartzeko.

### b. Eragileak identifikatzea eta aukeratzea, ingurumen-profiletara oso lotuta dauden prozesu parte-hartzaileetan sartzeko, eta esparru sozialetik zein ekonomikotik etorritako profilen inkorporazio eskasa

Tokiko Agenda 21etan lantzen diren gaiak eta arduradun politikoak zein teknikoak ingurumen-arlokoak izateak zailtasunak ematen ditu partaidetzarako garatu

diren espazioetan beste ikuspuntu batzuk sartzeko. Hori dela-eta, hainbat kolektibok (ikasleen gurasoen elkarteak, gazteen elkarteak, kirol-elkarteak, etorkinen kolektiboak...) eta sentsibilitatek ez daukate presentziarik, edota izatekotan mugatua daukate.

### c. Metodologiak eta esperientziak mimitizatzeke gehiegizko joera

Udalerriekin diagnostikoak egiten aritzen diren kanpoko laguntzaileek erabilitako metodologiak antzekoak dira, eta ez daude oso egokituak udalerrri bakoitzeko berezitasunetara. Hori dela medio, antzeko diagnostikoak, ekintza-planak, ekintzak eta adieraleak egiten dira erabat desberdinak diren errealtateentzat.

### d. Ekimen berriak sortzen dituzten Ekintza Planak diseinatzea eta txertatzea, baina aurrez dauden beste ekimenak sartzeko gaitasun gutxi dutenak (ez oso inklusiboak)

Aurretik esandako guztiaren ondorioz, Tokiko Agenda 21 hauetatik sortutako Ekintza Planek, ingurumen-izaera izateaz gain, ez dituzte behar den bezala inplikatu beste arloei lotutako pertsonak, eta, ondorioz, ez dituzte modu egokian jaso iraunkortasunaren alderdi sozialak eta ekonomikoak lantzen dituzten ekintzak.

Gomendagarria izango litzateke Tokiko Agenda 21ek gure udaletako kudeaketan ingurumenari dagokionez ekarritako hobekuntza nabarmena izaera sozialeko (immigrazioa, kultura, gazteria...) eta ekonomikoko beste politika batzuetara eramangarria izatea, planak eta ekintzak modu egokian prestatuta eta koordinatuta.

“Udalerrri iraunkor batean, herritarrek aske sentitu beharko lukete, euren sinesmenagatik, arrazagatik, generoagatik edota sexu-orientazioagatik inolako indarkeria edota jazarpenik jasan beharrik izan gabe.”

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO AGENDA 21ETAKO EKINTZA PLANAK IKUSPUNTU SOZIALETIK BEGIRATUTA

- Arlo sozialean inplikaturako pertsonen kopurua beste arloetan inplikaturakoena baino txikiagoa izaten da. Ondorioz, inplikazio handiagoa lortuta, iraunkortasunaren alderdi sozialak lantzen dituzten ekintzak hobetuko genituzke.
- Etxebizitzari, asoziazionismoari/parte-hartzeari, enpleguari eta nortasunari lotutako gaiak egoki lantzen dira, baina beste hainbat arlori lotutako ekintzen kopurua handi daiteke. Arlo horiek immigrazioa, osasuna, txirotasuna/bazterketa/gizarteratzea, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, integrazioa edota boluntario-lana lirateke.
- Orain arteko ekintza ohikoaren tipologiak ondokoak dira: sentsibilizazioa, heziketa, parte-hartzea eta informazioa, integrazioa eta kudeaketa. Baita ekipamenduei, azpiegiturei eta zerbitzuen eskaintzari lotutakoak ere. Ona litzateke, ordea, sarriago ikerketei, planei edota programei, pizgarri ekonomikoari eta iraunkortasun-prozesuei buruzko araudien martxan jartzeari edota aldaketari lotutako ekintzak azaltzea.
- Tokian tokiko erakundeek berariazko adierazleak proposatu dituzte, baina kasu zehatzetarako soilik. Bestalde, egokia litzateke egungo adierazlearen kopurua handitzea. Adierazle horiek ondoko gaiak buruzkoak dira: osasuna, emakumea/generoa/aukera-berdintasuna, haurtzarora/gaztarora, mendekotasuna eta drogamenpekotasunak.

## 6. taula. EAeko Tokiko Agenda 21etako Ekintza Planak ikuspuntu sozialetik begiratuta.

Iturria: Guk geuk egina, gida hau egiteko prestatutako diagnostiko kuantitatibo-ko ondorioetan oinarrituz.



## 5. Tokiko Agenda 21etan arlo soziala sartzearen onurak

**T**okiko Agenda 21en oinarri teorikoa tokiko iraunkortasuna da. Honen helburua herritarren bizi-kalitatea hobetzeko inguru eta kapital naturala, ekonomia iraunkorra eta gizarteko justizia integratzea da.

Beharrezkotzat jotzen da iraunkortasunaren gizarte-dimentsioa sartzea, ondasunak, zerbitzuak eta aukerak ekitatiboki banatuz gizartearen kohesioa lortzeko, eta horrela gizarte zuzenago baterantz jotzeko.

“**Sozialki iraunkorra den udalerrri** baten helburua hiriaren garapenean egungo eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea hobetzearen aldeko konpromisoa sartzea da, betiere *gizartearen kohesioa* kontuan izanda:

- Ez dago tokiko garapenaren onurez gozatzeko aukeratik kanpo geratzen den herritarrik (inklusioa).
- Tokiko garapenaren onurak herritar guztientzat izaten dira(ekitatea).
- Hiriko gizarte-eragileek (publikoek eta pribatuek) bere egiten dute printzipio hau, bai eta berau garatzen duten balioak ere, euren jardueran sartzen dituzte, eta elkarrekin egiten dute lan, hiriko gizarte-iraunkortasuna lortzeko (parte-hartzea)”.

**7. taula.** Sozialki iraunkorra den udalerrriaren definizioa.

*Iturria: Partaideen taldekako elaborazioa Tokiko Agenda 21en arlo soziala ekitaldean.*

Hala, Tokiko Agenda 21en potentziala eta onurak aprobetxatzeko aukera daukagu aurrean, alderdi sozialak sartuta prozesu horiek hedatuz.

### TOKIKO AGENDA 21etan ARLO SOZIALA SARTZEAREN ALDE ONAK

1. Osatuagoa gelditzen da Tokiko Agenda 21.
2. Geure burua hobeto ezagutzen laguntzen digu.
3. Udalerrriaren etorkizunean guztiok parte hartuko dugula ziurtatzen du.
4. Gauzak hobeto egiteko aukera ematen digu.
5. Solidarioagoak izaten erakusten digu.
6. Iraunkortasuna zer den hobeto ulertzen laguntzen digu.

**8. taula.** Tokiko Agenda 21etan arlo soziala sartzearen alde onak.

*Iturria: Guk geuk egina.*

#### 1. Osatuagoa gelditzen da Tokiko Agenda 21

- Tokiko Agenda 21etan *gizartearekin lotutako gaiak* sartzeko aukera ematen du.
- *Enpresen arloan ekimenak* bultzatzeko aukera ematen du, bai teknologiak garatzeko, bai enplegua sortzeko, bai babes soziala ekoizpenarekin uztartzeko.

- Funtsezkoa da *herritarren parte-hartzea sustatzeko*.
- *Hezkuntza eta kultur-jarduera* sustatzen ditu.
- *Segurtasunaren* eta jokaera baztertzailen zein deliktiboen *prebentzioaren* ikuspuntutik, iraunkortasuna bermatzen du.
- *Arduraz kontsumitzeko* kultura sortzen laguntzen du.
- *Bizimodu* osasuntsuagoak eta iraunkorrakoak bultzatzen ditu.

## 2. Geure burua hobeto ezagutzen laguntzen digu

- Gizartearen *kohesioa* eta *justizia* sustatzen ditu.
- *Tokiko errealitatea* hobeto ezagutzen laguntzen du, eta *tokiko nortasuna* garatzen zein *udalerrriaren irudia* hobetzen ere bai.

## 3. Udalerrriaren etorkizunean guztiok parte hartuko dugula ziurtatzen du

- Herritarrei *erabakiak hartzen* eta *erantzukizunak euren gain hartzen* laguntzen die.

## 4. Gauzak hobeto egiteko aukera ematen digu

- Gobernuen eta gizartearen zeregina birdefinitzen duten *formula berritzaileak aztertzen eta lantzen* ditu.
- Optimizatu egiten ditu udal-politikak, eta *eraginkorragoak* bihurtzen.



- *Udalaren autonomia* indartzen du (subsidiariorotasuna).
- *Udalerriaz gaindiko baliabide ekonomikoak* erraztasun handiagoz *eskuratzeko* aukera ematen du (kanpo-finantzaketa).
- *Gizarte-politikak* modu iraunkorrakoan *kudeatzeko* aukera ematen du.
- *Gizarte-politikak* garatzeko *irizpideak artikulatzen* eta *egokitzen* laguntzen du.
- *Gizarte-politikak* elkarren artean eta ingurumen-politikekin behar bezala *integrazteko* aukera ematen du.

## 5. Solidarioagoak izaten erakusten digu

- *Udalerriko jarduera solidarioak* sustatzen ditu.
- *Iraunkorrak* ez diren gure jokaerei buruzko *eztabaida etikoa* berreskuratzeko aukera ematen du.

## 6. Iraunkortasuna zer den hobeto ulertzen laguntzen digu

- Zinegotzietei, teknikariei eta herritarrei iraunkortasunaren kontzeptua *barneratzen* laguntzen die.


### Gotland-eko (Suedia) Tokiko Agenda 21: herritarren kontzientzia handitzen

Gotlandeko Tokiko Agenda 21en prozesua 1994an jarri zuten abian, eta 1999an onartu zuten bertako Ekintza Plana. Hasieran batean, ekonomiarekin eta ingurumenarekin lotutako helburuak sartu zituzten Ekintza Plan honetan; gizarteari lotutako alderdiak sartzeke daude oraindik. Lau urtean behin eguneratzen dute, edota gizartean zein ekonomian antzemandako aldaketek edukian esku hartzea eskatzen dutenean. Epe luzerako ikuspuntua erabiltzen dute (20 urte).

*Sektore anitz* biltzen dituen prozesua da, eta adostasun-maila handikoa. Bertan, agintari politikoez gain, langabeen kolektiboek, ikastetxeek, ingurumen-erakundeek, gizarte-zerbitzuek eta eskualdeko gobernuaren ordezkariak hartzen dute parte.

Herritarrek gazteei, haurrei, hiritarrei, profesionalei, ezinduei... zuzendutako lan-taldetan eta ikastaroetan parte hartzen dute. Langabeek osatutako talde batek antolatzen ditu hauek guztiak, tokiko agintaritzak finantzatutako hainbat kanpainaren bidez.





# 6. Tokiko Agenda 21etan alderdi sozialak sartzeko metodologia

## 1. FASEA. Aldez aurreko definizioa

**T**okiko Agenda 21en prozesuak borondatezko kudeaketa-tresnak dira, eta udal-esparru desberdinen babesari behar dute. Epe luzera behatzen dutenez udal-kudeaketa, gainditu egiten dituzte ziklo politikoaren denborazko mugak.

Udalerriri bateko Tokiko Agenda 21ean iraunkortasunaren alderdi sozialak sartu baino lehen, gogoeta egin behar da aurrez, prozesuak arrakasta izan dezan. Oinarrizkoak diren galdera batzuk erantzun behar dira: zer egin nahi dugu? Zein da gure abiapuntua? Norantz jo nahi dugu? Nola emango ditugu aurrerapausoak?

### 1. Helburuen zehaztapena (zer egin nahi dugu?)

Inplikaturik dauden eragile guztien artean oinarrizko akordioak eta konplizitateak lortzean oinarritzen da, bete nahi diren helburuak denen artean adosteko aukera izateko. Akordio eta konplizitate hauek hiru mailatan artikulatu behar dira:

#### a. Maila politikoan

##### Zer egin?

- Udalerriko Tokiko Agenda 21etan iraunkortasunaren alderdi sozialak behar bezala sartzeko, adostasun politiko zabala behar da.
- Udalerriko Tokiko Agenda 21ean iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzeko prozesua sustatzeko eta bertan parte hartzeko konpromisoa hartu behar da.
- Organigrama politikoan udalerriko Tokiko Agenda 21ean iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzetik eratorriko behar berrietara egokitu behar da. Aldaketa horiek konplexuak izaten direnez, garrantzitsua da prozesuaren hasieratik garbi ikustea aldaketak egiteko beharra, nahiz eta epe ertainera arte ez diren gauzatuko.

##### Nola eraman aurrera?

- Gogoeta egiteko, kontzientziatzeko eta arazoak elkarren artean zehazteko estrategia kolektiboen bidez (lan-talde operatiboak, hobekuntzarako taldeak, kalitatezko zirkuluak, adhokraziak...).
- Udaleko arduradun politikoak iraunkortasunaren inguruan informatzen, sentsibilizatzen eta gaitzen, garapen iraunkorraren alderdi guztiei garrantzi berezia emanda.
- Udalerriko Tokiko Agenda 21ean alderdi sozialak sartzeko dituen abantailak buruzko informazioa ematen: udal-kudeaketaren hobekuntza, pizgarri ekonomikoak, araudiak, aintzatespen publikoko jarduerak, etab.
- Inplikaturik dauden arduradun politiko guztiek (zinegotzigoek) akordio hauen aurkezpen publikoa egiten.

- Garapen Iraunkorraren (edo Iraunkortasunaren) Zinegotzigoa sortzen, zuzenean alkatetzaren menpe egongo dena.
- Herritarren Partaidetzarako Zinegotzigoa sortzen.

**b. Maila teknikoan**

**Zer egin?**

- Inplikaturak dauden arlo guztietako teknikariak motibatu, gaitu eta parte-hartzera bultzatu.
- Udaleko teknikariak honako konpromisoa hartzera bultzatu: udalerriko Tokiko Agenda 21ean iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko prozesuan gaitzen, aholkatzen, kudeatzen eta sustatzen laguntzea.

**Nola eraman aurrera?**

- Gogoeta egiteko, kontzientziatzeko eta arazoak zehazteko estrategia kolektiboak lantzen (lan-talde operatiboak, hobekuntzarako taldeak, kalitatezko zirkuluak, adhokraziak...) edota, beharrezkoa izanez gero, koordinatzeko egitura tekniko egonkorak.

- Udaleko teknikariak iraunkortasunaren inguruan informatzen, sentsibilizatzen eta gaitzen, arlo bakoitzak garapen iraunkorarekin duen harremana hobeto ezagutzearren.
- Langile guztiei Udalsarea 21en jardueren berri eman-go dieten informazio-kanalak sortzen.
- Prozesua diseinatzeko eta martxan jartzeko, hainbat arlotako teknikariak sartzeko.
- Arlo bakoitzak Tokiko Agenda 21eko prozesuan izango dituen erantzukizunak zehaztuko dituen protokoloa idazten.

**c. Herritarren mailan**

**Zer egin?**

- Herritarrak motibatu, gaitu eta parte-hartzera bultzatu.
- Herritarrak konpromisoa hartzera bultzatu.


**Nola eraman aurrera?**

- Gizarte zibilak sustatutako kanpainei babes instituzionala ematen (kanpo-zorra bertan behera uz-

NOR NAIZ?	ZER EGIN DEZAKET?
<b>ALKATETZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21en prozesua zuzentzea, garapen iraunkorraren zinegotzigoaz baliatuz.</li> <li>• Tokiko Agendaren prozesua sustatzeko konpromiso politikoa hartzea.</li> </ul>
<b>KARGU POLITIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21en prozesua sustatzeko eta bertan parte hartzeko konpromiso politikoa hartzea.</li> </ul>
<b>TOKIKO AGENDA 21eko TEKNIKARI ARDURADUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21etan alderdi sozialak sartzeko aukera ematea.</li> <li>• Kargu politikoak, teknikariak eta herritarrak iraunkortasunaren arloan gaitzea.</li> <li>• Sailen arteko koordinazioa sustatzea.</li> <li>• Herritarren parte-hartzea sustatzea.</li> </ul>
<b>HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TEKNIKARIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren parte-hartzearen eguneroko kudeaketa egitea eta proiektu parte-hartzaile zehatzak kudeatzea.</li> <li>• Udal-antolaketa lan egiteko modu berri bat sustatzea.</li> <li>• Kargu politikoak eta teknikariak herritarren parte-hartzearen arloan aholkatzea eta gaitzea.</li> <li>• Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea.</li> <li>• Parte hartzeko espazioak eskaintzea.</li> </ul>
<b>GIZARTE ZERBITZUETAKO TEKNIKARIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21az arduratzen diren teknikariei laguntzea, zuzenean edo zeharka gizarte-politikekin lotuta dauden gaiak garatzen eta martxan jartzen (diagnostikoa egiten, ildo estrategikoak eta Ekintza Planeko ekintzak diseinatzen eta martxan jartzen, adierazleak definitzen eta berrikusten...).</li> </ul>
<b>BESTE ARLOETAKO TEKNIKARIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21en prozesuan zuzenean edo zeharka inplikaturako gainerako pertsonei edo/eta erakundeei laguntzea.</li> <li>• Sailen arteko lankidetzak (zeharkakotasuna) eta herritarren parte-hartzeak tokiko administrazioaren kudeaketan sortzen dituzten abantailak barneratzea eta ikusaraztea.</li> </ul>
<b>HERRITARRAK (asoziatuak edo asoziatu gabeak)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21en prozesuan zeregin aktiboak izatea, horretarako egokitutako hainbat espaziotan parte hartuta.</li> </ul>

**9. taula.** Nor naiz? Zer egin dezake?

*Iturria: Guk geuk egina.*



**4. irudia.** Prozesuko ezaugarri nagusiak identifikatzea (Nondik?).

*Iturria: Guk geuk egina.*

ten, bidezko merkataritza sustatzen, pertsonen aurkako minak eta arma arinak debekatzen, inbertsio etikoen banku zein funtsak sustatzen...), ekimen hauei guztiei garapen iraunkorraren markoa eskainita.

- Herritarrak Tokiko Agenda 21en prozesuari buruz informatzen eta sentsibilizatzen, eta herritarren ohi-turak, jarrerak zein bizimoduak aldatzeko ekintzak antolatzen, iraunkortasuna sustatzeko.
- Udalerriko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 programa garatzen.
- Udalerriko Tokiko Agenda 21ean iraunkortasunaren alderdi soziala sartzeko prozesuan, herritarrek (antolatuta edo ez) zeregin aktiboa izateko konpromisoa hartzera bideratutako ekintzak martxan jartzen.

## 2. Egoeraren analisia (Nondik abiatuta? Norantz? Nondik?)

### 2.1. Prozesuko elementu nagusiak identifikatzea (Nondik?)

Abiapuntuaren ezaugarri nagusiak identifikatzeak oinarriko bi helburu dauzka: non gauden ikustea (Zein da gure abiapuntua?) eta prozesua behar bezala kokatzea.

Identifikazio-prozesu honek hiru pauso dauzka:

### 1. PAUSOA. GURE ABIAPUNTUKO EZAUGARRI NAGUSIAK ZEHAZTEA

Ondoren datozen galderen erantzunek gure abiapuntua nolakoa den jakiteko elementuak zehazten lagunduko digute.

Puntu hauek lantzeko aukera bat, Udalean Tokiko Agenda 21en prozesuan inplikaturik dauden arteko bilera egitea da, elkarren artean prozesuaren diagnostikoa egiteko eta alderdi sozialak zenbateraino dauden sartuta ikusteko. Bilera hori garrantzitsua izan daiteke bai hasi berriak diren prozesuetan, bai aurreratuta daudenean, baldin eta euren helburuak ikuspuntu integralago baterantz berbideratzeko beharra badute. Lagungarria izango da zer-nolako prozesua osatu den eta nolakoa osatu nahi den adosteko.

#### ■ Tokiko Agenda 21en berezko elementuak

- Aldi baterako izatea
  - Zein fasetan dago gure udalerriko Tokiko Agenda 21en prozesua?
- Zeharkakotasuna (sektoreen arteko eta administrazioen arteko dinamikak)
  - Nor da prozesuaren buru/sustatzaile politikoa?
  - Zer sail daude inplikaturik?
  - Ba al da Tokiko Agenda 21en prozesuan beharrezkoa den zeharkakotasuna bultzatzen duen egiturarik?

- Ba al da Tokiko Agenda 21en edota iraunkortasunaren zinegotzigorik?
- Zein gai landu dituzte modu egokian? Zeintzuk ez? Zeintzuk dira eskura dauden baliabideak (giza baliabideak, materialak eta finantzarioak)?

#### • Herritarren parte-hartzea (parte hartzeko dinamikak)

- Ba al da herritarren partaidetzarako zinegotzigorik?
- Ba al da herritarren parte-hartzea sustatzeko, kudeatzeko eta bultzatzeko zereginak dituen teknikaririk?
- Partaidetzarako zein egitura eta dinamika jarri dira abian gure udalerriko Tokiko Agenda 21en prozesuan?
- Zein eragilek hartzen dute parte aktiboki prozesuan? Zer ez?
- Udaleko beste arloetan ba al da partaidetzarako prozesurik?
- Tokiko Agenda 21eko partaidetzarako prozesuari lotuta al daude?

#### ■ Beste elementu batzuk (Tokiko Agenda 21etako berezko elementuei emaniko erantzuna baldintzatzen dutenak).

##### • Egiturak eta dinamikak

- Zein tamainakoa da administrazio-erakundea?
- Gure Udalean ba al da koalizioko gobernurik? Zeintzuk dira bere ezaugarriak?
- Egungo egitura antolatzaileak sinpleak ala konplexuak dira?
- Koordinatzeko informazio-kanal gisa erabil daitezkeen harreman pertsonalik ba al da teknikarien artean?

##### • Elkarreak

- Zenbat elkarre daude gure udalerrian?
- Nolakoa da gaiaren arabera duen espezializazio-maila? Ba al da hainbat gai lantzen dituen zeharkako elkarre (gazteen elkarre, erretiratuenak, bizilagunenak...), ala guztiak ere oso espezializatuak dira (kultur, kirol, ekologia... arlokoak)?
- Nolakoa da gure udalerriko elkarre parte-hartzearen maila eta mota Tokiko Agenda 21en prozesuan?

##### • Alderdi sozialen garapen-maila

- Zein adostasun-maila lortu da egoeraren diagnostikoa egitean eta, ondoren, ekintzak definitzean eta martxan jartzean?
- Zein hedadura-maila daukate ekintzek (landutako gaiak eta garapen-maila)?
- Tokiko Agenda 21en prozesuari a posteriori erantsitako gizarte-planik edota programarik ba al da (immigrazio-plana, haurtzaro-plana, kultur-plana...)?
- Zer kolektiborekin dihardute?
- Zein neurritan/mailatan egokitzen zaizkie ekintzak antzemandako beharrei?
- Zeintzuk dira iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzeko prozesuan lehenik eta behin landu beharreko gaiak?

## 2. PAUSOA. TOKIKO AGENDA 21EN EREDUA ZEHAZTEA

1. pausoa lortutako erantzunetatik abiatuta, Tokiko Agenda 21en zer eredutan gauden zehaz dezakegu:

#### ■ A eredia. Hasierako edo duela gutxi hasitako Tokiko Agenda 21

- Tokiko Agenda 21 prozesuaren hasierako fasean dago (oraindik ez da Ekintza Planik onartu).
- Ingurumen Zinegotzigoa da prozesuaren buru.
- Ingurumen Saila da gehien inplikaturiko dagoena.
- Landutako gaiak ingurumen arlokoak dira batik bat.
- Oro har, baxua da herritarren parte-hartze maila. Parte gehien hartzen dutenak erakunde ekologistak dira, eta ingurumenari lotutako kezka daukaten beste erakunde batzuk.

#### ■ B eredia. Tokiko Agenda 21 espezializatua edota aditua

- Tokiko Agenda 21 prozesua fase aurreratuan dago. Ekintza Plana onartuta dago, edota aplikatzen hasia.
- Ingurumen Zinegotzigoa da buru, baina beste sailek ere zeregin garrantzitsuak daukate.
- Nahiz eta burua Ingurumen Saila izan, beste sail batzuk beren esku daukaten gaien arduradun dira. Halere, ez dute inplikazio handiegirik prozesuaren koordinazioan.
- Ingurumenaren arloko gaiak daukate lehentasuna. Hain zuzen ere hauek dira Ekintza Planaren egutegian lehen-lehenik agertzen direnak, nahiz eta beste gai batzuk ere lantzen dituen.
- Herritarren parte-hartzea urria edota oso mugatua da ingurumenari lotutako gaietan espezializatutako eragileen kopuruan eta profileen.

#### ■ C eredia. Tokiko Agenda 21 pluralista edota sektoriala

- Tokiko Agenda 21en prozesua fase aurreratuan egon ohi da.
- Oso parte-hartzaileak dira (eragile ugari mugiaraztea lortu dute).
- Ez dute lortu iraunkortasunaren ikuspegia ingurumen-gaietara mugatuta egotetik ateratzerik (zeharkotasun-maila baxua).

#### ■ D eredia. Tokiko Agenda 21 ideal edo estrategikoa

- Alkatetza da prozesuaren buru, eta zeharkako zinegotzigo baten edota Ingurumen Zinegotzigoaren bidez jarduten du. Gainerako zinegotzigoekin ere aritzen da.
- Lantzen dituen gaiak iraunkortasunaren alderdi sozialei, ekonomikoari eta ingurumenekoei buruzkoak dira.
- Teknikarien inplikazioak eta herritarrek parte hartzeko kanalek ezin hobeto betetzen dituzte herritarren (antolatutako edo ez) itxaropenak.



11. taula. Tokiko Agenda 21en ereduak.

Fuente: Iturria: Guk geuk egina, Ismael Blancok eta Ricard Gomák (koordinatzaileak) lagunduta, Tokiko Gobernuak eta Partaidetzarako Sareak, 2002.

### 3. PAUSOA. BERRIKUSKETA-ZERRENDA ('CHECK-LIST') ETA DAFO ANALISIA ELKARREN ARTEKO ADOSTASUNEZ OSATZEA

Pauso hau emateko modu interesgarri bat erantzunak hiru mailatan kontrastatzea izan daiteke (teknikoa, politikoa eta herritarrena), hainbat metodo erabilita:

- Inprimakia aurrez banaka betetzea, eta gero hainbat sailen artean bateratzea.
- Banaka betetako galdeketak biltzea, koordinazioaz arduratzen den pertsonak informazioa prozesatzea, eta emaitzak aurkeztea.

- Zerrenda laneko bilera tekniko baterako gida bezala erabiltzea.
- Herritarrek prozesuari buruz duten iritzia ezagutzeko, Foroko bileretan ebaluazioa egitea..

*Eztabaiden edukia antolatzeko eta, berrikuspen-zerrendaren ('check-list') banaka edo elkarren artean bete ostean emaitzak lan-saioetan bateratzean ateratako ideiak garbi ordenatzeko, DAFO analisia egitea gomen datzen da.*





## 1. FASEA. Aurreko definizioa

### 1. Helburuen definizioa

#### Zer egin nahi dugu?

Helburuak definitu  
Oinarrizko akordioak  
eraiki



Adostasun politiko zabala lotu  
Motibazioa, prestaketa eta kargu politikoan,  
personal teknikoaren eta herritarren  
parte-hartzea. Politikariak, teknikariak  
eta herritarrak konprometitu

### 2. Egoera aztertu

#### Nondik?

#### Norantz? Non?

Non gauden jakin  
Prozesua egoeran kokatu



Prozesuaren ezaugarri diren elementuak  
identifikatu. Eredu ideala/estrategikoa definitu  
Baliozko ibilbide posibleak identifikatu  
eta aukeratu

## 2. FASEA. Gizarteko aspektuak gehitu

### 3. Prozesua diseinatu

#### Nola egin dezakegu?

Prozesua diseinatu  
eta planifikatu



Gaikako aurkibidea egin  
Organigrama teknikora egokitu  
Iraunkortasun batzordea sortu  
Laguntza teknikoa kontratatu

### 4. Diagnostia egin

#### Zer ezagutzen dugu gure herrian?

Diagnostia integrala egin



Datuak bildu: informazioaren memoria  
Diagnostia integrala eratu  
Diagnostia barruan eta kanpoan baliozkotu

### 5. Ekintza Plana diseinatu

#### Nola bilakatuko dugu errealitate?

Ekintza Plan integrala  
diseinatu



Helburuak, ildo estrategikoak  
eta ekintzak identifikatu, baliozkotu  
eta konparatu

### 6. Ekintza Plana implementatu

#### Nola bilakatuko dugu errealitate?

Ildo estrategikoetako  
ekintzak implementatu



Aurrekontuak aurreikusi  
Agenteen rola zehaztu  
Informazio-fluxuak antolatu  
Lan sistema definitu  
Agenteen arteko lankidetzakonpromisoa

### 7. Ekintza Planaren Segimendua

#### Nola jakin dezakegu funtzionatzen al duen?

Segimendu Plana diseinatu  
eta implementatu



Adierazle multzoa zehaztu  
Kanpoko ikuskeritza programatu  
Konparazio eta baliozkotze prozesua ezarri

5. irudia. Iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzeko prozesua.

Iturria: Guk geuk egina.

Bi gogoeta-tresna horiek (*'check-list'* eta *DAFO analisia*) prozesu honen potentzialitateei buruzko oso informazio baliotsua lortzeko aukera ematen dute, bai eta iraunkortasunaren alderdi sozialak sartzeari dagokionez epe motzera, ertainera eta luzera gainditu beharreko erronkei buruz ere.

## 2.2. Eredu idealaren/estrategikoaren definizioa (Norantz?)

### Zein izango litzateke Tokiko Agenda 21en eredu ideala/estrategikoa?

Tokiko Agenda 21en burua Alkatetza da, zeharkako zinegotzigo baten edota Ingurumen Zinegotzigoaren laguntzarekin. Agendak adostasun politikoaren babes du, bai eta gainerako zinegotzigoen babes sendoa eta segurua ere. Iraunkortasunaren alderdi sozialen, ekonomikoen eta ingurumenekoen integrazio egokia bermatzeko, inplikazio teknikoa eta herritarren parte-hartzea ere badauzka.

### Manresa-ko (Bartzelona) iraunkortasunaren aldeko programa sozialak eta ekonomikoak

Manresako Tokiko Agenda 21ak helburu sozialak eta ekonomikoak sartu ditu Ekintza Planean. Horrela, Plana idazteko eta garatzeko orduan udal-kudeaketako arlo guztiak inplikatzeko lortu da.

Programa sozialak eta ekonomikoak hiri iraunkor orok bermatu beharreko helburu edota ildo estrategikoak definitzen dituzten hainbat ekintza-eremutan bildu dira:

- a. **Manresa aktiboa.** Manresa hiri aktibo bilakatzea, herritarren dinamismoa eta ongizatea ziurtatzearen enplegu betearen alde arituko dena.
- b. **Berdintasunaren aldeko Manresa.** Manresa berdintasunaren hiri bilakatzea, guztiak izan dezaten beren integrazioa eta garapena ziurtatuko dituzten baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera.
